

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2017/2018 ikasturtea**

### **HAUR HEZKUNTZAN AUTISMOA DUTEN IKASLEEI ZUZENDUTAKO HEZKUNTZA ERANTZUNAREN PROPOSAMENA ESKOLA INKLUSIBOAN**

**Kasu baten analisia**

**Egilea:** Lorena Martínez Rivas

**Zuzendaria:** Igone Aróstegui Barandica

**Leioan, 2018ko maiatzaren 23an**

## AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	4
1.1. Autismoa duen ikaslea.....	5
1.1.1. Autismoa eta bere ezaugarriak .....	5
1.1.2. Autismoaren ondoriozko Hezkuntza Premia Bereziak (HPB).....	5
1.2. Autismoa duten ikasleei eman beharreko hezkuntza erantzuna eskola inklusiboan ....	7
1.2.1. Gaur egun eskoletan Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei zuzendutako ezohiko neurriak Haur Hezkuntzan.....	9
1.2.2. Inklusioa bultzatzen dituzten hezkuntza praktikak .....	11
2. Metodologia .....	14
2.1. Proposamenaren helburua.....	14
2.2. Proposamena garatzeko prozedura .....	14
3. Egoeraren testuingurua .....	15
4. Lanaren garapena.....	17
5. Emaitzak eta datuen interpretazioa .....	17
5.1. Ikastetxearen metodologiaren onurak HPBak dituzten ikasleei erantzuteko .....	18
5.2. Eskolako hezkuntza laguntza eta inklusioa.....	19
5.3. Autismoa duen ikasleari laguntzen dion ikaskuntza erantzuna .....	20
6. Proposamena .....	21
7. Ondorioak.....	21
8. Erreferentzia bibliografikoak .....	22
ERANSKINA.....	26
1. Eranskina. Garapen Orokorreko Nahasteak.	
2. Eranskina. Baimenak.	
3. Eranskina. Behaketa gidoia.	
4. Eranskina. Elkarrizketak.	
5. Eranskina. Ikastetxearen deskribapena.	
6. Eranskina. Giza-baliabideen antolakuntza.	
7. Eranskina. Hobekuntza proposamena.	

# HAUR HEZKUNTZAN AUTISMOA DUTEN IKASLEEI ZUZENDUTAKO HEZKUNTZA ERANTZUNAREN PROPOSAMENA ESKOLA INKLUSIBOAN

## Kasu baten analisia

**Lorena Martínez Rivas**

UPV/EHU

Haur Hezkuntzan autismoa duten ikasleei ematen zaien hezkuntza erantzuna ezagutzea eta hobetzeko proposamena egitea da helburua. Beraz, ikasleei ematen zaien hezkuntza erantzuna duen garrantzia kontuan hartuta, ikastetxeetan aplikatzen diren ezohiko neurriek hauengan dituzten onurak eta eman beharreko hezkuntza erantzunaren gakoak ezagutu nahi izan dira marko teorikoaren bidez. Metodologia kualitatiboa erabili da kasu zehatz baten ikerketa egiteko beharrezkoak izan diren datuak biltzeko; horien artean, behaketa eta elkarrizketa teknikak erabili dira. Emaitzek adierazten dute oraindik ikastetxeak inklusiorako prozesuan hobekuntzak egin behar dituela, batez ere, gisa-baliabideen antolakuntzan. Inklusioa ikastetxe osoko ikuspuntua izan behar da eta horrek ikastetxearen praktiken berregituratzea eskatzen du nolabait.

*Autismoa, Hezkuntza Premia Bereziak (HPB), aniztasuna, eskola inklusiboa, hezkuntza erantzuna*

El objetivo es conocer qué respuesta educativa se da a los niños autistas en Educación Infantil y crear una propuesta para mejorarla. Por lo tanto, y teniendo en cuenta la importancia de las respuestas educativas que se les brindan, se ha realizado un marco teórico para conocer los beneficios que traen para los niños las estrategias utilizadas y las respuestas que se deberían dar. Se ha hecho uso de metodología cualitativa para recabar datos en cuanto a un caso concreto a través de observaciones y entrevistas. Los resultados revelan que aún queda mucho por hacer en la escuela en cuanto al proceso de inclusión, sobre todo en la organización de los recursos humanos. La inclusión debe ser el punto de vista de toda la escuela, y para eso es necesario reestructurar las prácticas que se realizan en ella.

*Autismo, Necesidades Educativas Especiales, diversidad, escuela inclusiva, respuesta educativa*

The aim is to acknowledge the educational response given to autistic children in Children Education, and to develop a proposal to improve it. Therefore, and taking into consideration the importance of the educational responses offered to them, a theoretical framework has been elaborated so as to know the benefits that the employed strategies bring to children, and the responses that should be given. Qualitative methodology has been used in order to collect data about a particular case by making observations and interviews. The results show that there is still work to be done as far as inclusion at schools is concerned, mainly in the organisation of human resources. The inclusion must be the point of view of everyone in the school, and in order to achieve that the practices give in them must be restructured.

*Autism, Special Educational Needs, diversity, inclusive school, educational response*

## Sarrera

Gradu Amaierako lan honen helburua, izenburuak adierazten duen bezala, Haur Hezkuntzako etapan autismoa duten ikasleei eman beharreko hezkuntza erantzuna aztertzea eta hobetzea da; betiere, eskola inklusiboaren oinarriak aintzat hartuz. Izan ere, gaur egun ez da arraroa autismoa eta beste Hezkuntza Premia Bereziak dituzten haurrak ohiko ikastetxeetan eskolatuta egotea, baina horrek ez du ziurtatzen ikasle horien inklusioa.

Gaur egun, inklusioa hezkuntzaren helburua da, hezkuntza sistemaren ildo hain zuzen ere. Haur Hezkuntzako irakasleek betetzen duten papera funtsezkoa, garrantzitsua eta erabakigarria dela iruditzen zait; 0-6 urte bitarteko etapa horretan hainbat oinarri eraikitzen direlako eta horiek ondorio positibo zein negatiboak izango dituztelako etorkizunean. Beraz, horien eraikuntzan partaide izango naizenez ni neu ere, ikasle guztiei kalitatezkoa den hezkuntza eskaini nahi diet.

Lanari hasiera emateko, esparru teorikoa eta kontzeptuala dago non, autismoa duten ikasleen ezaugarriak eta horien ondoriozko Hezkuntza Premia Bereziak aztertu diren. Ildo beretik jarraituz, autore desberdinek gai honi buruz esaten dutena aztertu eta kontuan hartu da lana atal desberdinetan banatzeko; hala nola, autismoa duten ikasleei eman beharreko hezkuntza erantzuna eskola inklusiboan eta gaur egun, eskoletan Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei zuzendutako ezohiko neurriak. Hau guztia egin ahal izateko, legeak ez ezik, une honetan indarrean dauden edo orain dela gutxira arte indarrean egon diren plan eta protokolo desberdinak analizatu dira. Lehenengo atal honekin bukatzeko, inklusioa bultzatzen duten hezkuntza praktikak aipatzen dira; autore desberdinen ideiak batuz eta frogatuta dauden praktikak azalduz.

Metodologiari dagokionez, lana aurrera eramateko metodologia kualitatiboa erabili da beharrezkoak izan diren datuak biltzeko; horien artean behaketa eta elkarrizketa teknikak erabili dira. Horiek horrela, metodo induktiboa aipatzekoa da ikastetxe bateko neska baten kasu zehatza aztertu delako. Bestalde, datuen bilketarako ikastetxean ikaslearekin inplikazio zuzena duten profesionalekin hitz egin da datuen interpretazioa egiterakoan informazio osagarria lortzeko. Hortik abiatuz, hobekuntza proposamenak egin dira Haur Hezkuntzan autismoa duen ikasleari hezkuntza erantzuna hobetzeko. Amaieran, eranskinen atala dago non, informazio gehigarria agertzen den lanaren nondik norakoak zehaztasun handiagoz aztertzeko eta ulertzeko.

## 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

Gaur egungo errealitate sozialari begirada bat eskainiko bagenio, berehala ohartuko ginatke heterogeneotasuna eta dibertsitatea gure jendartea deskribatzen dituen bi errealitate direla. Beraz, eskolak errealitate hori kudeatzeko eta horri erantzun egokia emateko ereduak aldatu eta egokitu behar du (Muntaner, 2014). Horrela, ikasleei eskaintzen zaien hezkuntza kalitatezkoa izango da; pertsona guztientzako eskola sortuz (Arnaiz, 2003; Cordero, 2004; Echeita eta Sandoval, 2002; UNESCO, 2015; Molina, 2015; Muntaner, 2014). Era berean, ezberdintasunak onartzen dituen komunitatea sortzea da helburua; horiek kontuan hartuz, errespetatuz, aitortuz eta balioetsiz (Parra, 2010; Sapon, 1999).

Heterogeneotasun eta dibertsitate horren ondorioz, hezkuntza zentroetan praktika inklusiboen aldeko diskurtso desberdinak eman dira (Molina, 2015); eta diskurtso horren eragile nagusia UNESCOk 1990. urtean egin zuen aldarrikapena da. Izan ere, haur guztiek hezkuntza jasotzeko eskubidea daukatela aldarrikatu eta eskubide hori eraginkortasunez ohiko eskoletan burutu behar zela adierazi zuen. Urte batzuk geroago, “Conferencia Mundial sobre educación de necesidades especiales: acceso y calidad” Salamancako adierazpenak haur guztien hezkuntzarako eskubidea berretsi zuen (UNESCO, 1994); eta esan dezakegu aitorten horri esker eta denboraren poderioz, ezgaitasuna duten pertsonen onarpena, eta bere ahotsa entzun eta kontuan hartzen dela gero eta gehiago gaur egun (Galarreta, 1999). Ondorioz, beste proposamen batzuk sortzen hasi ziren hezkuntza inklusibora abiatuz (Arnaiz, 2003).

Hortaz, gure jendartean eman diren aldakez ohartuz, beharrezkoa da gaur egun dagoen Hezkuntza Sistema zehaztasun handiagoz aztertzea. Argi dago eskolaren helburua ikaskuntza prozesua sustatzea dela, baina kalitateak eta ekitateak presentzia izan behar duten bi ezaugarri dira. Bada, kalitatezko hezkuntza bermatzeko ikasle guztientzat izan behar da eta horretarako, hezkuntza inklusiborantz eman behar dira aurrerapausoak. Dena den, hezkuntza inklusiboa denbora luzea behar duen prozesua da (Muntaner, 2014) eta gure gizartea oraindik bide hori eraikitzen ari da.

Aurreko guztia aintzat hartuz, ezinbestekoa da galdera hauei buruz hausnartzea: Eskola ere aldatu da gaur egungo jendartearen beharretara? Ikastetxeek zer egiten dute aniztasunari erantzuteko? Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleei nolako hezkuntza erantzuna ematen zaie Haur Hezkuntzan?

## **1.1. Autismoa duen ikaslea**

Autismoa duen ikasle baten eskolatzea zaila izan daiteke hasierako hezkuntza etapetan. Askotan, Haur Hezkuntzako irakasleak izaten dira konturatzen direnak garapenean zenbait alerta daudela. Horregatik, oso garrantzitsua da irakasleek beharrezkoa den informazioa eta prestakuntza jasotzea. Hortik abiatuz, gai izango dira ikasleek behar dituzten hezkuntza-laguntzak emateko; garrantzi handikoak izango baitira derrigorrezko eskolatze aldi osorako (Merino eta García, 2011).

### **1.1.1. Autismoa eta bere ezaugarriak**

Autismoa haurren garapen orokorrean ematen den nahastea da (*ikusi I. eranskina*). Hau da, haurraren lehenengo hiru urteetan agertzen den nahastea da (Posada et al., 2004). Jatorri biologiko du eta eragin handiagoa dauka gizonezkoen artean, baina emakumeek pronostiko larriago izaten dute (Darreche, 2010). Nahaste honek, modu kualitatiboan hainbat funtzio psikologikoetan eragiten du; hala nola, interakzio sozialean, ahozko zein ez-ahozko komunikazioan, sinbolizazioan zein irudimenean eta jarreran. Hori dela eta, txikitatik autismoa duten haurrek ezin dituzte gaitasun hauek normaltasunez garatu 18 hilabete eta 5 urteren artean (Rodgla eta Miravals, d/g). Era berean, autismoak beste ezaugarri eta ondorio batzuk dakartza; esaterako, %75eko adimen desgaitasuna (Jordan, 2012), jarrera arazo larriak, urduritasuna eta antsietatea, depresioa, elikadura zein loaren nahasteak, ekintza motorretan nahasteak (Rodgla eta Miravals, d/g), krisi epileptikoak izateko joera (Posada et al., 2004) eta abar. Ikus daitekeenez, arlo psikomotor, sentsorial eta emozionaleko beste edozein gaixotasunekin lotuta joan daiteke.

Bukatzeko, esan beharra dago autismoak garapenean sortzen dituen nahasteak iraunkorrak direla; hots, autismoa bizitza osoan irauten duen nahastea da (Sarasa, Darreche eta Gaintzak, 2012) eta ez dagoela test edo froga mediko zehatzik pertsona batek autismoa duela adierazten duena. Normalean, diagnostikoa haurren jokabidea behatuz, garapenaren historia ezagutuz eta froga mediko eta psikologikoak burutuz egiten da. Horien bidez, autismoaren sintomak agertzen diren ala ez jakin daiteke.

### **1.1.2. Autismoaren ondoriozko Hezkuntza Premia Bereziak (HPB)**

Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoak (2012, 49. orr.) honela definitzen du HPBen terminoa: “Ezgaitasunak edo jokabide-nahaste larriak izateagatik eskolatze-aldi batean edo eskolatze osoan berariazko hezkuntza-laguntzak

edo hezkuntza-arretak behar dituzten ikasleak dira. HPBak dituzten ikasleak". Hortaz, autistek gainerako kideek baino zailtasun handiagoak dituzte curriculumean beraien adinerako zehazten diren ikaskuntzak lortzeko (Aguirre, Alvarez, Angulo eta Prieto, 2008). Gainera, garapenaren eta adinaren arabera ikasle guztien beharrak aldatuko dira.

Hasteko, beste pertsona batzuekin sozializatzeko eta elkarrekintzan aritzeko zailtasunak izaten dituztenez, batzuetan isolamendua nabaria izaten da. Hori dela eta, beraien jarrera nahiko pasiboa izaten da besteenganako interes gutxi erakutsiz. Orokorrean, gizartean dauden arauak, sentimenduak eta emozioak ulertzeko zein adierazteko, pentsaerak eta interesak trukatzeko zailtasunak izaten dituzte (Martos, Llorente, Gonzalez, Ayuda eta Freire, 2016). Ondorioz, autistek ez dute trebetasunik gizarte harremanak ezartzeko (Aguirre et al., 2008; Darreche, 2010; Rodgla eta Miravals, d/g).

Bestalde, ahozko zein ez-ahozko komunikazioan ere nahasteak nagusitzen dira autismoa duten pertsonen artean. Baliteke pertsona batzuek inolako hizkuntza motarik ez garatzea, baina beste batzuk, aldiz, komunikazio sistema alternatiboak erabiliz komunikatzeko gai izaten dira. Halere, haur bakoitza desberdina da eta horrenbestez, hizkuntza trebetasuna ere desberdina izan daiteke. Hots, batzuek hizkuntzaren etapei dagokionez, ekolalia izan ohi dute; hitzak edo esaldiak errepikatzen dituzte, inbertsio pronominala egiten dute eta abar. Gainera, ahozko hizkuntzan trebetasunak izanik, zailtasunak izaten dituzte elkarriketa bat hasteko edo jarraitzeko eta ez dituzte txantxak, ironiak eta esanahi bikoitza dituzten esaldiak ulertzen. Komunikazioarekin bukatzeko, esan beharra dago aurpegiko keinuak, adierazpenak eta jarrerak ulertzeko zailtasunak ere izaten dituztela (Darreche, 2010; Rodgla eta Miravals, d/g).

Azkenik, interes eta jokaeretan errepertorio mugatua izaten dituzte (Aguirre et al., 2008). Gehienek ez dute joko sinbolikoak garatzen, ezta fantasia jolasak; horrek eragin zuzena dauka besteen emozioak eta intentzioak ulertzeko gaitasunean. Horrez gain, ez dira gai gertaerak aurreikusteko eta beraien jokaeraren patroiak errepikakorrak izaten dira (Darreche, 2010; Martos et al., 2016; Rodgla eta Miravals, d/g). Autismoa duten pertsonak ezin dituztenez onartu ezta ulertu bat-bateko egoerak, beraien egunerokotasunean errutinak ezinbestekoak dira (Martos, 2016; Tamarit, 1995). Halere, errutinek garrantzi handia daukate Haur Hezkuntza osoko etapan, hurrei segurtasuna ematen baitie.

Aurrekoaz gain, Rodgla eta Miravalsek (d/g) adierazten dute ikasle hauen autonomia maila oso baxua dela. Ondorioz, gelako espazioak ikasle guztien autonomia lortzera bideratuta egon beharko dira. Ezinbestekoa da irakasle gisa ume hauekin lan egiteko beharrezkoak diren estrategiak ezagutzea eta banakako curriculumeko egokitzapenak egiterakoan hainbat alderdi kontuan izatea (Alcantud, 2003).

## **1.2. Autismoa duten ikasleei eman beharreko hezkuntza erantzuna eskola inklusiboan**

Eskola inklusiboa, HPBen trataerari dagokionez, gaur egungo Hezkuntza Sistemaren printzipioetako bat da. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako 237/2015 Dekretuan, 8.2.b. artikuluan Haur Hezkuntzako helburua oinarrizko konpetentziak garatzea dela zehazten da. Horretarako, 23.1. artikuluan xedatzen den bezala, irakasleek garatzen dituzten hezkuntzaren esku-hartzeak ikasleen aniztasuna aitortu eta erreparatu behar dute. Hortaz, oinarrizko konpetentzien garapena lortzera bideratu behar dira haurrak.

UNESCOk (2008) adierazi zuen bezala, hezkuntza inklusiboa haur guztien eskubidea da. Beraz, eskolak haur guztiak gainerakoekin batera hezteko eskubidea bermatu behar du; horretarako, irakasleak ikasleen gaitasunetatik abiatu behar dira zailtasunei aurre egiteko (Ainscow, 2012; Muntaner, 2014; Sapon, 1999). Alabaina, prozesu honek umeen ikaskuntzarako oztopoak identifikatzeari eta ezabatzeari jartzen dio arreta, batez ere baztertuta izateko arriskuan edo errendimendu ezin hobea ez lortzeko arriskuan dauden taldeei (Echeita eta Sandoval, 2002; Parra, 2010; UNESCO, 2008). Hori horrela izanik, gaur egun eskoletan dagoen aniztasunari aurre egiteko ezinbestekoa da berdintasunetik ekitatera trataera ematea.

La inclusión se ve pues como un proceso que permite tener debidamente en cuenta la diversidad de las necesidades de todos los niños, jóvenes y adultos a través de una mayor participación en el aprendizaje, las actividades culturales y comunitarias, así como reducir la exclusión de la esfera de la enseñanza y dentro de ésta, y en último término acabar con ella. Entraña cambios y modificaciones de contenidos, enfoques, estructuras y estrategias basados en una visión común que abarca a todos los niños en edad escolar y la convicción de que corresponde al sistema educativo ordinario educar a todos los niños y niñas (UNESCO, 2009, 9. or.).

Dena den, Echeita eta Ainscow-ren (2011) arabera, arazorik nagusiena, gehienetan, “eskola inklusiboaren” terminoa HPBekin lotzen dela da eta ez luke horrela izan behar. Aipatu den bezala, inklusioa ikasleria osoa hartzen du bere baitan eta badira autore ugari eskola inklusiboaren definizioa eman dutenak (Arnaiz, 1996; Armstrong, 1999;



Stainback eta Stainback, 2001; Ainscow, Booth eta Dyson, 2006). Halere, Echeitak (2008, 10. or.) esaten du ez dagoela definizio zehatz bat, “hace referencia a un concepto y a una práctica poliédrica, esto es, con muchas facetas o planos, cada uno de los cuales tiene algo de la esencia de su significado, pero que no lo agota en su totalidad”. Hori dela eta, aipatutako autoreen definizio desberdinak aztertu ondoren, argiena eta osatuena honako hau izango litzateke:

Un proceso de análisis sistemático de las culturas, las políticas y las prácticas escolares para tratar de eliminar o minimizar, a través de iniciativas sostenidas de mejora e innovación escolar, las barreras de distinto tipo que limitan la presencia, el aprendizaje y la participación de los alumnos y alumnas en la vida escolar de los centros donde son escolarizados, con particular atención a aquellos más vulnerables (Ainscow, Booth eta Dyson, 2006, 25. or.).

Rodriguez eta Torrego (koor.) (2013) bat datoz aipamen horrekin, hezkuntza inklusiboa definitzen dituzten aldagai gisa definitzen dituztelako ikasle guztien presentzia, parte-hartzea eta aurrerapen akademikoa zein pertsonala. Hori bermatzeko, gelako aniztasuna abiapuntutzat hartu beharko litzateke. “La diversidad no está siendo considerada como un valor educativo, probablemente porque las características de las prácticas educativas que los centros desarrollan aparecen ligadas al modelo del déficit” (Arnaiz, 2003, 147. or.).

Orokorrean, autismoa duten ikasleei bideratutako esku-hartzeak, gainerako ikasleen esku-hartzeen helburu berberak izan beharko lirateke. Horretarako, aukerak eskaintzeaz gain, behar dituzten laguntzak eman behar zaizkie beharrezkoak diren gaitasun eta trebetasunak lortzeko. Dena den, ingurunea eta gela egokitu beharko dira ikaslearen ezaugarrietara beraien autonomia ahalik eta gehien garatzen laguntzeko. Autismoa duten ikasleek gaitasunen bat garatuago izaten dituzte eta hortik abiatu behar da esku-hartzea. Izan ere, indargune horiek gehiago garatzen badira ikasleen autoestimuan eragina izango du eta gainerakoen begirunea handiagoa izango da (Aguirre et al., 2008).

Beharrezkoak diren gaitasunak Haur Hezkuntzako etapan lortzen ez badira, legera jo behar da eta beharrezkoak diren neurriak aplikatu. Gure kasuan, Eusko Jaurlaritzako 237/2015 dekretuak adierazten du beharrezkoa izatekotan, 25.6. artikulua aplikatu behar da; izan ere, HPBak dituzten ikasleak maila berean geratu ahal izango dira urtebetez, betiere, familiak ados badaude.

### **1.2.1. Gaur egun eskoletan Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei zuzendutako ezohiko neurriak Haur Hezkuntzan**

Hezkuntzako Lege Organikoei esker, gure herrialdean HPBak dituzten ikasleei eskaintzen zaien laguntza aldatuz joan da urteetan zehar. Haatik, inklusiorako bidearen hasiera duela gutxiko kontua da; 2/2006 Lege Organikoak (LOE) aurreko legeak (1/1991 LOGSE) integrazio printzipioan zituen akatsak zuzentzea baitzuen helburu. Aldaketa horri esker, ikasleen beharrezanean erantzuteko testuinguruak eskaintzen dituen aukerak nabarmendu ziren, edozein motatako segregazio eta bazterketak deuseztatuz. Honenbestez, gaur egun EAEn, behintzat, ez da arraroa autismoa duten haurrak eskolatuta aurkitzea (Gioconda, 2016); hori oso garrantzitsua baita inklusio soziala bermatzeko (Arce, 2013). Dena den, inklusioa ez da soilik ikastetxeetan egin behar, gizarte osoan egin beharreko kontua baita (Domingo eta Palomares, 2013).

Hori guztia kontuan izanik, badira ikastetxe ugari beraien Hezkuntza Proiektuan aniztasuna eta dibertsitateari aurre egiteko plan propioa dituztenak. Horren bidez, ekitate eta kalitatezko hezkuntzaren arteko oreka bilatu nahi dute ikasleen beharrezanean hezkuntza erantzun egokia emanez eta eskola inklusiboaren alde eginez. Halere, oraindik eskoletan egiten den praktika ohikoena, hezkuntza beharrezan dituzten ikasleak gelatik kanpo ateratzea eta curriculum egokitzapena egitea da; baina honek ez dio guztiz erantzuten eskola inklusiboaren filosofiari (Salas, 2016).

Ildo beretik jarraituz, ezinbestekoa da aztertzea eskolek zer nolako ezohiko neurriak zuzentzen dituzten HPBak dituzten ikasleentzat, batez ere, Haur Hezkuntzan. Izan ere, 1998ko dekretua zein aginduaz gain, gure administrazioak, kasu honetan Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza esparruan jarduteko zenbait plan desberdin jarri ditu martxan azken urteotan. Baina horiek aztertzen hasi baino lehen, indarrean dagoen araudiari erreferentzia egitea nahitaezkoa da.

Alde batetik, 118/1998 Dekretua dago eta honen xedea ikasleen HPBei eskola-eremuan erantzuna ematea da, EAeko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan. Bertan, HPBen kontzeptua ezartzen da; baina aldatu egin da eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoarekin; HPBak ezgaitasuna eta jokabide-nahaste larriak dituzten ikasleak direlako. Horrez gain, dekretuak jarduteko protokoloa ezartzen du non, talde multiprofesionalak esku-hartzen duten; dena den, hau aldatu egin da eta gaur egun

ebaluazio hori Berritzeguneen esku geratzen da beharrezkoan diren curriculum egokitzapenak definitzeko (40/2009 Dekretua, otsailaren 17koa).

Bestetik, 1998eko uztailaren 30eko Agindua dago non, HPBei erantzuteko baliabideen hornidura eta PTaren funtzioak zehazten diren. Halere, agindu honen azken aldaketak 2002-05-09an egin ziren. Aginduaren berriztatze honekin, gizarte edo kulturaren aldetik egoera txarragoan dauden ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleentzat hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dira. Hori alde batera utziz, une honetan, irakasleek indarrean dagoen legea hartu behar dute erreferente gisa; gure kasuan, Eusko Jaurlaritzako 237/2015 Dekretuan, honako hau adierazten da:

5. HPBak dituzten Haur Hezkuntzako ikasleei dagokienez, curriculumaren ebaluazio-irizpideetatik eta edukietatik nabarmen aldentzen diren egokitzapenak ezartzeko aukera egongo da. Egokitzapen guztien helburua izango da oinarrizko konpetentziak ahalik eta gehien garatzea, eta ikaslearen lan-plan pertsonalizatuan jasota geratuko dira. Egokitzapenotan finkatutako ebaluazio-irizpideen arabera izango dira ebaluazio eta maila-igoera (237/2015 Dekretua, V. Kapituluua, 23. artikulua).

Honez gero, Eusko Jaurlaritzaren eskutik dauden planak aztertzeari ekingo diogu, eskoletan aniztasunari erantzuteko erreferentzia gisa hartu behar baitira. Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012tik 2016 urtera arte soilik egon da indarrean eta une honetan berrikusten ohi daude. Plan honen xede nagusia, umeen gaitasunak eta trebetasunak ahalik eta gehien garatzea da, besteak beste.

Bestalde, 2014ean Eusko Jaurlaritzak Heziberri 2020 plana atera zuen xedea Europako hezkuntza helburuei erantzutea izanik; norbanako testuingurua kontuan hartuz, erronkei aurre egitea Euskal Herrian eta munduan bizi ahal izateko. Heziberri hiru proiektu hartzen ditu bere baitan; hala nola, hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa, curriculum-dekretuak egin eta Euskal Eskolaren Legeari ekiteko bidea eman.

Eskola inklusiboak, denentzako eskola gisa ulertzen du; hots, haur eta gazte guztiak hezkuntzara irits daitezten bermeak ematen dituena, baita aukera-berdintasuna, justizia eta ekitatea eskaintzen duena. Ikasle guztiek elkarrekin eta berbera ikasi egin behar dute eta haien artean dauden ezberdintasunei aurre egiteko gai izan beharko da eskola inklusiboa; gizarte-gune demokratiko eta parte-hartzaileak eraiki beharko baititu. Beraz, aniztasuna ikasteko eta hobetzeko aukera bezala ikusten du, talde guztiak anitzak baitira. Gainera, aniztasunak batez ere, kolektibo mehatxatuenei eragiten diela eta horiei arreta gehiago eskaini behar zaiela. Horretan parte hartuko dute irakasleek,

profesionalek, familieek, gizarte-inguruneak eta hezkuntza-administrazioak; haien helburua izango baita egoera horretan daudenei ikastetxe bereko kidea sentiaraztea.

Aurrekoaz gain, Arreta Goiztiarreko ereduak (2010) ere badago 0-6 urte bitarteko haurrei, familiei eta inguruneari zuzenduriko esku-hartze multzoekin. Honen helburua, jokaera nahaste larriak dituztenei ahalik eta arinen erantzun on bat ematea da. Ildo beretik jarraituz, Beharrian Bereziak dituzten Haurren Arreta Integraturako Prozesua (2013) dago. Kasu honetan, beharrian bereziak dituzten haurren arretan parte-hartzen duten erakunde sanitario, sozial eta hezkuntzako arteko lankidetzarekin haurrentzat eta haien familientzat zein ingurunearentzat jarduera multzoa garatzen dituzte.


Planekin bukatzeko, haurren garapenari jarraipena gertutik egiteko premiarekin lotuta dagoen dokumentua dago, Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa (2015) hain zuzen ere. Hezkuntza Sistemak funtsezko eginkizuna betetzen du haurren garapenaren arretan eta protokolo hau bi fasetan banatzen da: garapen ohiko zaintza (tutoreak) eta detekzio espezifikoak (Berritzeguneko espezialistak edo irakasle aholkulariak).

### **1.2.2. Inklusioa bultzatzen dituzten hezkuntza praktikak**

Aurreko guztia kontuan hartuz, ikasle guztientzat zuzendutako kalitate eta ekitatezko hezkuntza bermatzeko, ezinbestekoa da ikasteko moduak behatzea eta aztertzea; horretan dagoelako eskola arrakastaren gakoa. Beraz, ikasteko modu bakarra ez dagoenez, eskolako lana ikuspegi desberdinetatik planteatu behar da aberasgarriagoa izan dadin (Salas, 2016). Horiek horrela, ikaskuntzaren teoria dialogikoei erreferentzia egitea beharrezkoa da, ikusmolde komunikatiboa duelako eta aurretik sortutako beste ekarpenak bere baitan barne hartzen dituelako (Aubert, Flecha, García, Flecha eta Racionero, 2013). Interakzioan oinarritutako ikaskuntza-prozesuaren garapena azaltzen duen teoria da non, ikaslea bera da bere ikaskuntza-prozesua eraikitzen duen. Beraz, ikaskuntza dialogikoaren ideia zentrala berdintasunezko elkarrizketa eta interakzioa da.

Horrez gain, aipatutako ikusmolde komunikatibo horrek bi alderdi gakoetan aldaketak ezartzen ditu. Alde batetik, ikaskuntza maila altuenak lortzeko ikaskuntzaren orientabidea eta bestetik, irakaslearen paper kolaboratiboa hezkuntza agente bezala. Ikaskuntzaren orientabideari dagokionez, ikusmolde komunikatiboak eta ikaskuntza dialogikoak garapen potentzialean jartzen dute enfasia; ikasleak lotu behar duena hain zuzen ere (Aubert, Flecha et al., 2013). Dena den, interakzio horiek ez dira bakarrik

ematen irakasleekin eta berdinen artean, baizik eta familia eta beste pertsona batzuekin ere. Hortaz, ikaskuntza gero eta gutxiago dago gela barruan gertatzen denaren menpe eta garrantzi handia hartzen ari du ikastetxean eta hortik kanpo ematen denaren koordinazioak (Tamarit, 2005). Hainbat psikologoek aipatzen dute interakzioa eta elkarrekintza ikaskuntza gisa; hala nola, Vygotsky, Bruner, Rogoff, Wells, Freire, Habermas eta abar (Aubert, Flecha et al., 2013).



1. Irudia: Interakzio unitateak (Aubert, Flecha et al., 2013, 87 orr.).

Bestalde, curriculumaren zehaztapen mailei erreparatuz, esan beharra dago 2. eta 3. zehaztapen mailetan zehazten direla praktika inklusiboak. Ikastetxe nahiz irakasleen betebeharra baita. Hau da, praktika inklusiboak ikastetxeetan agertzen diren zailtasunak identifikatzeko eta konpontzen saiatzeko ikuspegia edukitzea eskatzen du. Beraz, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan eta Ikastetxeko Curriculum Proiektuan zein ikasgelako programazioetan zehazten dira inklusio-praktikak. Horiek horrela, inklusioa bultzatzen dituzten hezkuntza praktika batzuk azalduko dira jarraian.

Ikasleen aurrerapena bermatzeko, taldekatze mota aberatsena heterogeneotasunean oinarritzen dena da (INCLUD-ED, 2011; Rodriguez eta Torrego, 2013). Ikasleak talde heterogeneoetan banatuz gero, taldeak ikaskuntza maila anitzez osatuta egongo dira eta aberatsagoa izango da ikaskuntza prozesua. Horrela, interakzioaren bitartez, berdinen artean desberdintasunetatik ikasteko aukera izango dute (Arnaiz, 2003; Echeita, 2008) eta zailtasunak dituzten haurrek laguntza gehiago jasoko dute beraien ikaskideengandik. Era berean, laguntza eskaintzean ezagutzak gogoratzen eta sendotzen dituzte (Molina, 2015). Horregatik, ikasle guztien ikaskuntza eta parte-hartzea sustatu behar da (Ainscow, 2012; Hezkuntza, Hizkuntza, Politika eta Kultura saila, d/g).

Heziberri 2020 bat dator aurreko ideia guztiekin eta ikastetxean zein ikasgelan inklusioa abian jartzeko proposatzen dituen orientabide metodologikoetan zenbait ideia azaltzen ditu.

Aurrekoaz gain, badaude taldekatze motekin harreman zuzena daukaten praktika inklusibo batzuk; izan ere, gaur egun frogatuta daude hoberenatarikoak direla emaitza akademikoen aldetik. Hala nola, tertulia dialogikoak, talde elkarreragileak, ikasleen arteko tutoretzak eta abar. Praktika inklusibo hauek guztiak ikasleen taldekatze txikiak eta heterogeneoak eskatzen ditu (Parrilla, 1992; Ziluaga eta Iturbe, 2013; Zugazaga, Uribe, Rodríguez, eta Aróstegui, 2013). Horiek ikasle guztien aurrerapen akademikoa ez ezik, pertsonala ere bultzatuko dute, haien lorpenak aintzat hartuz eta beraien bizitzan eragina izango duten erabakietan parte hartzeko boterea emanaz (Tamarit, 2005).

Horri guztiari gaineratu behar zaio irakaslearen jarrera eta antolakuntza. Izan ere, askotan ikastetxeek baliabide faltari egosten diote inklusio falta, baina normalean, irakasleriaren antolakuntzan dago gakoa (Molina, 2015; Muntaner, 2014). Nahiz eta prozesu erraza ez den, “Irakasle bakar-ra-gela bakar-ra” eskemarekin apurtu behar da. Hots, ikasleak ikastetxe osoarenak dira, ez tutore edo HPBko irakaslearenak; hortaz, irakasle guztiak egon daitezke ikasleekin. Hoberena gela berean bi irakasle izatea da (Heziberri 2020), tutorea eta laguntzen duena hain zuzen ere. Laguntzen duen irakaslea ez da zertan izan espezialista, ikastetxean tutorea ez den edozein irakaslek bete dezake paper hori. Horrela, bien artean hobeto koordinatuko dira aniztasunari modu inklusibo batean erantzuteko; ikasle guztientzako laguntza eskainiz eta ikasle guztiak ekintza berean parte hartzeko aukera emanaz; berdin dio hasierako ikaskuntza maila desberdina bada (Molina, 2015). Beraz, aurreko guztia bermatzeko irakaskuntzaren berrantolaketa beharrezkoa da.

Bukatzeko, ibilbide eta curriculum pertsonalak malgutu behar dira, baita zenbait ikaskuntza-testuinguru ahalbidetu; horien artean arlo ez-formalekoak. Izan ere, “ikasle guztiak hezkuntza-sistemara iritsi, hartan parte hartu eta ikasten jarduteko egon litezkeen hesiak birrintzeko konpromisoa hartu behar da, eta ahaleginak ere egin behar dira ikastetxeak aniztasunari aurre egiteko izan litzakeen mugak gainditzeko” (Heziberri 2020, 48. or.). Hortaz, ikasgelarako proposamenak eraiki behar dira curriculum-a zein edukien ikaskuntza taldeko ikasle guztien premiei erantzun egokia emateko.

## 2. Metodologia

Jarraian irakurri dezakezen bezala, metodologiaren atal hau bitan banatu da irakurleari proposamenaren helburua eta garatzeko prozeduraren nondik norakoen ulermena errazteko asmoz.

### 2.1. Proposamenaren helburua

Aukeratutako zentroa, Bizkaiko kostaldean kokatuta dagoen ikastetxe publikoa da. Bertan, 5 urteko gelan dagoen eta autismoa duen neskatxo bati bere hezkuntza erantzuna hobetzeko eta ikaskuntza sustatzeko asmoz, egoeraren azterketa burutu da ondoren, hobekuntza proposamen bat egiteko. Aipatutako azterketa hori modu egokian aurrera eramateko, aurretik bilakaera bibliografikoaren berrikuspena egin da non, euskarri teoriko eta zientifikoetan oinarritu den.

### 2.2. Proposamena garatzeko prozedura

Lan hau aurrera eramateko, metodologia kualitatiboa erabili da behar diren datuak biltzeko. Hau da, behaketa eta elkarrizketa teknikak erabili dira informazioa lortzeko. Horrekin batera, esan beharra dago metodo induktiboa aintzat hartzekoa dela, kasu zehatz bat aztertu delako (Canales, 2006). Azterketa hau posible izateko, haurraren familia informatu da jakinaren gainean egon daitezen (*ikusi 2. eranskina*).

Alde batetik, behaketaren bidez, errealitatea den bezala jasotzeko aukera dago; manipulazio eta aldaketarik gabe. Izan ere, behar izan ditudan datuak ikertzeko eta jasotzeko ezinbesteko tresna da. Hori aurrera eramateko, behatu nahi dena erregistro taula edota fitxa batzuetan item desberdinen bidez adierazita dago (*ikusi 3. eranskina*). Gainera, planteatzen den proposamena kontuan izanik eta martxan jarritz gero, haurrak izan dituen aurrerapenak eta gabeziak ikusteko aukera izango da.

Bestetik, elkarrizketaren teknika erabili da egoera hobeto ezagutzeko, gure informazioa egiaztatzeko eta informazioa osagarria izateko. Hots, elkarrizketek behaketarekin lortu ezin daitekeen informazioa jasotzeko aukera ematen dute. Horri horrela izanik, lau elkarrizketa burutu dira; hala nola, tutoreari, alboko gelako irakasleari, ALEko irakasleari eta PT-ari (*ikusi 4. eranskina*). Horretarako, burutu diren elkarrizketa horiek erdi egituratuak izan dira (Bisquerra, 2004); informazioa lortzeko askatasun eta

malgutasun gehiago ematen baitute. Beraz, gai batzuen inguruan galdera sortak proposatu dira behar den informazioari buruz ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Datuen bilketari amaiera emateko eta horien interpretazioa egiteko, jasotako informazioa aztertu da behaketa eta elkarrizketen ikuspuntu desberdinak aintzat hartuz. Hala, emaitzak eta datuen interpretazioa burutu da jarraian hobekuntza proposamenak egiteko.

### 3. Egoeraren testuingurua

Aztertzen den ikaslea eta bere familiaren jatorria errumaniarra da. Neskatoa bertan jaio da, baina kultura eta hizkuntza desberdintasunen ondorioz, bai ikasleak bai familiak arazoak dituzte hizkuntzarekin, bereziki euskararekin. Era berean, aipatzekoa da askotan Errumaniara joaten direla hilabete batez gainerako familia ikustera. Ondorioz, umeak hezkuntza arloan egiten dituen aurrerapenak nabariak izan arren, bueltan datozenean atzerapen izugarria adierazten du, batez ere, komunikazio arloari dagokionean. Izan ere, bere errutinekin apurtzen du guztiz desberdinak diren beste ekintza batzuk burutuz.

Bestalde, ikasleak kostaldean dagoen ikastetxe publiko batean burutzen ditu bere ikasketak non, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapak eskaintzen diren. Zehaztasun handiagoz aritzeko, egoera hau Haur Hezkuntzako 5 urteko gelan ematen da. Gela berean, 23 ikasle daude (14 neska eta 9 mutil) eta aniztasuna nabaria da. Izan ere, ikasleriaren gehiengoa herrikoa da baina jatorri eta kultura desberdinetako haurrak daude; hala nola, ijitoak, errumaniarrak, argentinarra eta kolonbiarra.

Aipatu den bezala, ikastetxe publikoa denez, hezkuntza saila eta herriko udalaren menpean dago eta 2 urtetik aurrera dituzten haurrentzako hezkuntza bermatzen da. Horrez gain, eskola eraikin desberdinez eta gimnasioaz osatuta dago (*ikus 5. eranskina*) eta zentroan guztira, Haur Hezkuntzako 196 haur daude. Haurren premiei era egokian erantzuteko eta haien beharrak asetzeko, giza-baliabideen antolaketak ezinbesteko garrantzia dauka; hala nola, zuzendaritza taldea, gelak, hezitzaileak, laguntzaileak eta beste hainbat langile (*ikus 6. eranskina*). Hortaz, hirugarren eranskinean azaltzen den bezala, nahiz eta Hezkuntza Bereziko gelak egon, kasu honetan ezinbestekoa da aipatzea nahiz eta gelatik ordu batzuetan atera, gela barruan tutoreaz gain, laguntzako beste hezitzaile bat dago berarekin ordu batzuetan.



Metodologiari dagokionez, ikastetxeak sistema pedagogiko berritzailea eramaten du aurrera, Amara Berri Sistema hain zuzen ere. Sistema honek, adin desberdinetako haurrak nahasten ditu gela berean, batez ere Lehen Hezkuntzan. Hau da, ikastetxe honetan, behintzat, adin nahasketa Lehen Hezkuntzan soilik burutzen da. Haur Hezkuntzan, aldiz, adin bakoitzak bere gelak ditu eta haurrak ez dira nahasten adinaren arabera. Gainera, hezkuntza etapa guztietan ikasgelak txokoez antolaturik daude eta horrek ikasleen autonomia, elkarlana, harremanak sendotzen ditu. Lan taldeak heterogeneoak dira eta desberdintasuna ezaugarritzat hartzen dute, horrek taldeak aberasten dituelako.

Beraz, gelako espazioaren antolaketa txokoez banaturik dagoenez, autismoa duen ikasle honek jadanik errutina hartuta duenez, badaki txoko bakoitzean zer egin behar duen eta baieztatu dezakegu gelako antolaketak bere autonomia bultzatzen duela nolabait. Gainera, umeei jolasaren bitartez, helduen mundua imitatzen dute eta horri esker, egoera erreala barneratzen dituzte modu ludikoan. Hots, jolasen hezkuntza asmoa aprobetxatu behar da haurren interesa pizteko eta ikaskuntza prozesuan aurrera egiteko; esaterako, zenbakiak ikasteko mahai jolasak, batuketak egiten ikasteko denda txokoa, hizkuntza idatziari hurbilpena egiteko ordenagailu jolasak erabiltzea eta abar. Haur Hezkuntzan, ez dute testu liburuekin ikasten; egindako jardueren bitartez ikasten dute, nahiz eta fitxen sistema ere erabiliz.

Bukatzeko, sistema hau aurrera eramateko oso garrantzitsua da irakasleen antolaketa eta horretarako, klaustroak, bilera pedagogiko, sektore, ziklo eta mintegiak egiten dituzte. Bertan, gai desberdinak jorratzen dira; adibidez, curriculumaren faseak, esku-hartze estrategiak eta abar. Horrez gain, ikastetxean martxan dauden proiektuak ere mesedegarriak izan daitezke ikasleen hezkuntza indartzeko. Kasu honetan, ikastetxeak hainbat proiektu ditu eta honako hauek dira Haur Hezkuntzako etapara zuzenduta daudena: euskararen normalkuntza, ingelesaren sarrera goiztiarra, jolas kooperatiboak, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua, Agenda 21, elkarbizitza plana, irakurketa plana, liburutegia eta abar.

#### **4. Lanaren garapena**

Aurreko atalean autismoari eta autismoa duten ikasleei eman beharreko hezkuntza erantzunari buruzko zenbait datu aipagarri eta kontuan hartzekoak aztertu ondoren, behaketarako gidoia eta hiru elkarrizketa egiteko galdetegiak diseinatu dira.

Behaketa gidoia sortzeko, autore desberdinek egindako hainbat dokumentu eta gida aztertu dira; hala nola, Sainz (1996), Merino eta García (2011), Escribano (2010) eta De Francisco (2016), batik bat. Horrez gain, Espekto Autistaren inbentario taula bat (IDEA, d.g.) ere erreferentzia gisa hartu da bere antolamendua aztertzeko. Hori guztia kontuan hartuz, aztertu nahi zenari buruzko item desberdinak zehaztu dira, baina ez da soilik kontuan hartu haurrak behar duena edo dituen zailtasunak autismoa izateagatik. Honekin esan nahi dena da, testuingurua ere aintzat hartu dela informazioa lortzeko eta oartzeko nola ikasgelaren antolamenduak eragina izan dezakeen ikasleengan. Behaketa lauzpabost egunetan burutu da arlo desberdinak eta egoera desberdinetan ikaslearen jokatzeko modua behatzeko. Halere, batzuetan irakasleekin zein PTarekin hitz egin da informazioa kontrastatzeko eta informazio osagarria lortzeko.

Horrez gain, lau elkarrizketarako gidoiak diseinatu dira. Laurek antzekoak diren galderak izan ditzakete, baina oso desberdinak dira berez. Izan ere, elkarrizketa egin zaien pertsonen modu desberdinean egiten dute lan autismoa duen ikaslearekin. Hori dela eta, galdera horiek planteatzerakoan, Hezkuntza Inklusiborako gida Index for Inclusion (2015) aintzat hartu da eta egoera honetara egokitu dira zenbait datu eta galdera. Beraz, lau elkarrizketa burutu dira hezkuntza profesional desberdinekin: PT, ALE, tutorea eta alboko gelako irakaslea. Eskola komunitateko langile hauek guztiek harreman zuzena daukate autismoa duen ikaslearekin eta Haur Hezkuntzako etapa osoan esku-hartu dute. Arrazoi anitzengatik lau elkarrizketetatik bakarra grabatu da.

#### **5. Emaitzak eta datuen interpretazioa**

Marko teorikoan azaldu den bezala, gaur egun, inklusioa ikastetxe osoaren ikuspuntua izan beharko litzateke; hots, ikasle guztiei zuzendutako hezkuntza erantzuna. Hiru hilabeteetan zehar ikastetxean egunero behaketa eginez eta irakasle desberdinekin izandako elkarrizketak aztertuz, daturik aipagarrienak azalduko dira hurrengo azpiataletan.

### 5.1. Ikastetxearen metodologiaren onurak HPBak dituzten ikasleei erantzuteko

Ikastetxeak duen metodologia erabakigarria da ikasleen ikaskuntza prozesuaren garapenean (INCLUD-ED, 2011). Aurretik aipatu den bezala, ikastetxe honetan Amara Berri Sistema erabiltzen da; diziplinartekoa, kontzeptuala; antolatzeko, planifikatzeko, gogoeta egiteko, aztertze eta erabakiak hartzeko sistema (Anaut, 2004). Hau guztia kontuan izanik, irakasleek metodologia modu positiboan baloratzen dute eta PTak honako hau dio metodologiari buruz:

*“Niri Amara gustatzen zait dekolako lau txoko eta bakoitzak beren txokoan lan egiten dauela, autonomoa. Nahiko dinamikoa dala”.*

*“TEACH oso pautata dago eta espazio bakoitzak zeregina deko eta hasieran, Amara niri bilurre emoten eustan TEA umiekin, batez be, lehengo ziklorako salto eiterakoan horrenbeste gela eduki izanda, pentsaten neban “ene bada marie eingo jatez”. Baina ez, txoko bakoitzak bere betebeharra dekolez, umiek lotzen dabe espazio konketro bat betebeharr batekin eta oso ondo dago”.*

Era berean, ikasgelan dauden txokoek ikasleen jokabide autonomoa ahalbidetzen dute eta ikastetxeak eskaintzen dituen hezkuntza etapa guztietan daukate presentzia. Hortaz, ikasleen taldekatze txiki eta heterogeneoak bultzatzen dira desberdintasuna ezaugarritzat hartuz (Anaut, 2004). Ikasle guztiak desberdinak dira eta ezberdintasun horrek taldeak aberasten ditu; aniztasun hori aprobetxatzeko ezinbestekoa da irakasle bat baino gehiago izatea (INCLUD-ED, 2011; Rodriguez eta Torrego, 2013). Gainera, PTak aipatu duen bezala, irakasleek ere baieztatzen dute ikasleek txoko bakoitza zeregin batekin lotzen dutela; halere, hasieran zenbait zailtasun aurkitzen dituztela adierazten du alboko gelako irakasleak:

*“Hasieran, dinamika hartzea zaila egiten zaie batzuei. Laguntzarekin bereganatzen doaz dinamika hori eta denborarekin gai dira haien kabuz gela eta txokoetako espazioetan kokatzeko eta jakiteko leku bakoitzean zer egin behar duten. Espazio bakoitzak bere helburu, jarduera eta material desberdinak ditu eta haiek badakite zer non dagoen eta zer non egin behar den. Orduan, zereginak espazio desberdinekin lotzen dituzte”.*

Bestalde, irakasleen antolakuntza ezinbestekoa da ikastetxe baten funtzionamendua bermatzeko (Molina, 2015). Zentro honetan Haur eta Lehen Hezkuntzako etapak eskaintzen direnez, profesional ez ondo hornituta dago; irakasleak ez ezik, HPBak dituzten hurrei laguntza emateko hainbat espezialista daudelako (PT, ALE, gorren taldekatze irakasleak, logopeda eta abar). Horrez gain, ikastetxean bertan ordezkapenak egiteko ordutegi bat dute zehaztuta eta etapa bietako irakasleak nahasten

dira. Hau da, HHko irakasle bat LHko gela batera joan daiteke ordezkapena egitera eta alderantziz.

Atal honekin bukatzeko, irakasleek egunero daukate ordubete gauzak antolatzeko; bost ordu horietatik hiru ziklo bilerak egiteko eta formakuntza jasotzeko dira eta gainerako biak, gelako programazioa egiteko. Irakasleak eta PTak saiatzen dira programazioa elkarrekin egiten gero ildo beretik jarraitzeko ikasleei eskaintzen zaien laguntza. Horrek ikasleari eskaintzen zaion arreta hobetzen du, modu integralean erantzunez. Halere, irakasleek aitortu dute egunero ordubete izatea ez dela nahikoa, gauza asko egin behar dituztelako eta irakasleen arteko elkarrizketa batzuk nahiko informalak izaten direlako.

*“Nahiko ondo konpontzen gara, baina sarritan formakuntza, gurasoekin bilerak edota beste arazoren bategatik estu eta larri ibiltzen gara”.*

*“Egia da, denbora gehiago beharko genuke egiteko batzarrak. Askotan, guk kotxean goazenean egiten dogu, es que ez dosku emoten bizitzak, ez dekoгу saio nahikorik behar ditugun batzarrak izeteko. Inoiz ahalegintzen eta lortu dot eskusiba izatea tutoreak egiten dutenean programazioa aste osokoa eta hor itzel izeten da”.*

## 5.2. Eskolako hezkuntza laguntza eta inklusioa

Hezkuntza Sistemak funtsezko eginkizuna betetzen du eta tutoreek haurrak behatzen dituzte une oro beraien garapenean zailtasunak dituzten ala ez identifikatzeko, batez ere Haur Hezkuntzan. Horregatik, garapenean gabeziaren bat dagoela sumatzen denean, Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa (2015) jartzen da martxan eta Berritzeguneeen parte-hartzea hasten da. Hortaz, PTak dio ikasleek diagnostiko sendo bat izan behar dutela Berritzeguneko zerrendetan sartzeko.

*“Orduan gure ikasleak bihurtzen dira. Gero zelan banatzen ditugun ikasleak? Aholkulariak ikusten du PT bakoitzak zelako edo non dekon esku-hartze hobeagoa eta eskola honetan, ikasle asko ditugunez zerrendetan, 40 baino gehidxau. Orduan, egiten dogu ziklotan banatu PTok, ez beti horrela baina irizpide bat holan aputxu bet lana errazteko, ez?”*

Aztertu den kasu honetan, ikasleak eskolako hezkuntza laguntza jasotzen du. Dena den, PTak aitortzen du murrizketek eragin handia dutela une honetan ikasleei eskaintzen zaien hezkuntza erantzunean. Izan ere, ikasle honek PT eta ALE laguntzak gelatik kanpo jasotzen ditu eta ordu batzuetan soilik, hezitzaile bat dago gelan berarekin.

*“Murrizketak dekie, lehen TEA dun ikasleak zuzenien, beharrianak direla eta, hezitzaile bat zeukan. Orain, kasu... zuk dinozun kasuan, ez dago hezitzaile bat berantzat. Orduan,*

*beste ikasliek, fisio, logopeda edo PTn dauden bitxartien, horien hezitzaileak daude ikasle horrekin gela barruan”.*

Horrez gain, PTak adierazten du berak ez diola inklusioari erreparatzen laguntza eskaintzerakoan eta arlo ekonomikoa aipatzen du argudio gisa. Hargreavesek (2016) aipatzen duen bezala, hori ez da praktika inklusiboa; umeei gehiago ikasten dute besteekin izandako interakzioen bidez.

*“Orduan, halakoekin saio berezia aprobetxatzeko oso ondo, baina zerbait zehatza lantzeko gelatik atera behar dira eta laguntza gelan egoten dira. Bestela, ahalegintzen gara beti gela barruan egotie. Nik ez dot beittuten inklusiboa edo eskusiboa. Nik ikusten dot umearen beharra zelan arazo bakoitzean, zelan emon erantzunik onena. Inklusibitatea lortzen dute saio guztietan, kontua da PTa dala baliabide oso garestia eta PTaren saioak oso ondo, oso ondo erabili behar direla. Orduan, zuk egin behar duzuna da erantzun eraginkorra”.*

Inklusioaren arloari bukaera emateko, aipatzekoa da ikastetxe honetako eraikinen antolamendua. Honek ere eragin handia du ikasleei eskaintzen zaien hezkuntza erantzunean eta zeharka bada ere, transmititzen diren estereotipoetan.

*“Eskola honetan, gainera, harrigarria eta oso aipagarria den egoera bat dago: HPBko ikasleentzako eraikin espezifikoa bat dagoela eta HPBko ikasleak eraikin horretara bidaltzen dituzte. Inklusiorik ba al dago hor?”.*

### **5.3. Autismoa duen ikasleari laguntzen dion ikaskuntza erantzuna**

Behaketaren bidez agerian geratu den bezala, gelan txokoen presentzia izateak onurak ekartzen ditu autismoa duen ikaslearengan (Seguí eta Duran, 2011). Horri esker, ikasleen autonomia, elkarlana eta harremanak sendotzen direla behatu da. Izan ere, talde txikiek interakzioa sustatzen dute gela barruan (Arnaiz, 2003; Echeita, 2008) eta harreman hori gelatik kanpo ere islatzen da. Kasu honetan, autismoa duen ikaslea inoiz ez dago bakarrik eta lagunak aurkitzeko gaitasuna eskuratu du. Era berean, ikasleek harrera ona egiten diote eta ez dute inoiz bakarrik uzten. Beraz, ikasleari taldekatze txikien presentziak asko laguntzen dio, talde txikietan hobeto egiten duelako lan (Seguí eta Duran, 2011; Hargreaves, 2016). Tutoreak honako hobekuntza hauek aipatzen ditu:

*“Komunikazioan adibidez, iazko gabonetara arte (HH4 urteko gelan) ez zuen barbarik egiten eta hitz solteak bakarrik errepikatzen zituen (ekolalia). Gero, hasi zen hirugarren pertsonan hitz egiten eta orain hasi da lehenengo pertsona erabiltzen. Horretaz aparte, harremanetan ere aurrerapen handia izan du, lehen bakarrik ibiltzen zen eta orain ez, lagunak topatzen ditu”.*

Talde txikien presentzia onuragarria den heinean, gelako espazio desberdinak haurrari egokitzea bere burua gelan kokatzeko oso lagungarria izango litzateke; hala nola,

txokoetan irudiak izatea (Rodgla eta Miravalsek, d/g). Hau da, errutinak egiterakoan edota haurrari egunaren antolamendua azaltzeko korridorera ateratzen dute. Beraz, ez dute gelan talde handian berari gelan kokatzen lagunduko dizkieten gauzak egiten (Stainback eta Stainback, 1999). Izan ere, giza-baliabideen faltari egozten diote arazoa.

*“Nire ustez, gure erronkarik nagusia ikasle bereziaren kopurua igo egin dela da, baina ez hezitzaile, ALE eta PTarenak. Ume asko ditugu gelan eta HPBak dituzten ikasleak gelan ezin dira zentratu eta arreta indibiduala beharrezkoa da haientzat. Dena den, profesional horiek gelan sartzearen alde nago”.*

Bukatzeko, Heziberri 2020 eta INCLUD-ED (2011) gela bakoitzean dagoen irakasle kopurua aipatzen dute inklusioa bultzatzeko faktore gisa. Kasu honetan, ikasgela bakoitzeko irakasle bakarra dago aniztasunari zein ratio handiei aurre egin behar diena. Beraz, estrategia desberdinak erabili daitezke; hala nola, gela berean bi irakasle izatea, talde elkarreragileak, ikasgelaren bikoizketa eta abar.

## 6. Proposamena

Aurreko atalean egindako datuen interpretazioa aintzat izanik, hobekuntza proposamenak egin dira Haur Hezkuntza autismoa duen ikasle baten hezkuntza erantzuna hobetzeko asmoz (*ikusi 7. eranskina*). Hauek ikasgela barruan talde handian erabiltzeko material eta espazioen egokitzapenei lotuta daude gehienbat. Hots, proposamenak ikuspegi orokorra du eta ikasle guztientzako lagungarria da; gela barruan ikasle guztien parte-hartzea bermatzeko. Izan ere, eskola publikoa da eta giza baliabideen hornidura gobernuari dagokio. Ondorioz, esan daiteke hezkuntza inklusiboaren oinarriak betetzea ez dagoela guztiz ikastetxearen esku; administrazioak zerikusi handia baitauka baliabideen inbertsioan. Dena den, HPBak dituzten ikasleen hezkuntza erantzuna asko hobetu daiteke material egokiak eta anitzak erabiliz.

Horiek horrela, hobekuntza proposamenak hiru arlotan banatu dira; hala nola, komunikazioa, gaitasun sozialak eta bestelako laguntzak lantzeko.

## 7. Ondorioak

Ikerketa honen emaitzak eta datuen interpretazioa kontuan izanik, ondorio batzuk atera dira. Alde batetik, marko teorikoan azaldu den bezala, ikastetxeak eskola inklusiboari buruz duen ikuspuntuak garrantzi handia du ikasleei eskaintzen zaien hezkuntza

erantzunean. Izan ere, inklusioa bermatzeko ikastetxe osoak duen antolamenduari erreparatu behar zaio. Kasu honetan, ikasleei ematen zaien eskola laguntza guztiak ez dira ikasgela barruan izaten eta hori ez dator bat inklusioaren printzipioekin. Izan ere, oraindik egiten den praktika ohikoena, hezkuntza beharrianak dituzten ikasleak gelatik kanpo ateratzea eta curriculum egokitzapena era baztertzailer batean egitea da. Beraz, curriculum eta testuingurua da ikasleari egokitu behar dena eta ez alderantziz.

Bestetik, gela batean planteatzen diren proposamenak ikasle guztiei zuzendutakoak izan behar dira; ondorioz, ikasle guztien beharrianak aintzat hartu behar dira. Horiek horrela, errazagoa izango litzateke gelan bertan HPBak dituzten ikasleei erantzutea. Horrez gain, Haur Hezkuntzan HPBak eta autismoa duten ikasleei begira arreta inklusiboa emateko, egokiena ikasgelan bertan laguntza eta gela berean bi irakasle izatea izango litzateke. Askotan baliabide faltari egosten zaio inklusio falta, baina normalean irakasleriaren antolakuntzan dago gakoa. Izan ere, laguntzen duen irakaslea ez da zertan espezialista bat izan, ikastetxean tutorea ez den edozein irakaslek bete dezake paper hori. Bien artean modu koordinatuan lan eginez gero, aniztasunari hobeto erantzuteko aukera izango dute ikasle guztiei beharrianak asetzen lagunduz.

Laburbilduz, ikastetxe hau hezkuntza inklusiboaren ibilbidean dago eta oraindik, aldaketak eta hobekuntzak egin behar dituzte baliabideetan, antolakuntzan eta eskola inklusiboari buruz daukaten ikuspuntuan. Hala, ikasle guztiei eskaintzen zaien hezkuntza erantzuna kalitatezkoa izango da.

Bukatzeko, Gradu Amaierako Lan hau burutzeko prozesu oso luzea jarraitu da hainbat hilabeteetan zehar. Zailtasun handienak hasieran eman ziren; lanaren edo ikerketaren nondik norakoak zehaztu eta lana nolabait bideratu arte. Hortik aurrera, erabilitako metodologia eta datuen bilketa egiteko teknikak asko erraztu dute lanaren jarraipena.

## **8. Erreferentzia bibliografikoak**

1/1991 Lege Organikoa, urriaren 27koa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorra (LOGSE).

2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (LOE).

40/2009 Dekretua, otsailaren 17koa, Berritzeguneen egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautzekoa.

- 118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.
- 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta EAEn ezartzeko (EHAA 2016-01-15).
- Agindua, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharrez bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko.
- Agindua, 2002ko maiatzaren 7koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, gizarte edo kulturaren aldetik egoera txarragoan dauden ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleentzat hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neuri arautzen dituena.
- Aguirre, P. et al. (2008). *Manual de atención al alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo derivadas de Trastornos Generalizados del Desarrollo*. Sevilla: Dirección General de Participación e innovación Educativa.
- Ainscow, M. (2012). Haciendo que las escuelas sean más inclusivas: lecciones a partir del análisis de la investigación internacional. *Revista Educación Inclusiva*, 5 (1), 39-49.
- Ainscow, M., Booth, T. y Dyson, A. (2006). *Improving schools, developing inclusion*. Londres: Routledge.
- Alcantud, F. (2003). *Intervención psicoeducativa en niños con trastornos generalizados del desarrollo*. Madril: Ediciones Pirámide.
- Armstrong, F. (1999). Inclusion, curriculum and the struggle for space in school. *International journal of Inclusive Education*, 3 (1), 75-87.
- Anaut, L. (2004). *Sobre el sistema Amara Berri*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Arce, E. (2013). La inclusión escolar de los alumnos con Trastorno del Espectro de Autismo: Análisis de la respuesta educativa al alumnado con TEA. *ACLPPinforma*, 30, 15-16.
- Arnaiz, P. (1996). Las escuelas son para todos. *Siglo Cero*, 27 (2), 25-34.
- Arnaiz, P. (2003). *Educación inclusiva: una escuela para todos*. Málaga: Ediciones Aljibe.
- Arreta Goiztiarreko Taldea. (2015). *Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarra Hezkuntzaren Baitan. Arreta Goiztiarreko Marko-Plana*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Aubert, A., Flecha, A. et al. (2013). 2. kapitulu: Del enfoque individual al comunitario. El giro dialógico en las teorías del aprendizaje. *Aprendizaje dialógico en la sociedad de la Información*, 78-92 or. Barcelona: Hipatia.
- BBHAIP. (2017). *Beharrez Bereziak dituzten Haurren Arreta Integraturako Prozesua*. Gasteiz: Osakidetza.
- Bisquerra, R. (2004). *Metodología de la investigación educativa*. Madril: La Muralla argitaletxea.
- Booth, T. eta Ainscow, M. (2015). *Guía para la Educación Inclusiva: Desarrollando el aprendizaje y la participación en los centros escolares*, 3.ed. Madril: OEI.
- Canales, M. (2006). *Metodologías de investigación social. Introducción a los oficios*. Santiago de Chile: LOM Argitaletxea.
- Cordero, H. (2004). Educación inclusiva. *Revista electrónica Educare*, 6, 23-38.
- Darreche, L. (2010). *Hezkuntza Inklusiorako materialen gida: Adimen eta garapen urritasuna. Haur Hezkuntza*. Euskal Herria: FEVAS.




- De Francisco, N. (2016). *Aprendo en el recreo. "Una guía para desarrollar habilidades sociales en alumnos con TEA en el entorno educativo"*. Sevilla: Asociación Autismo Sevilla.
- Domingo, B. eta Palomares, A. (2013). La necesidad de nuevas estrategias metodológicas en la educación inclusiva del alumnado autista. *Revista de la Facultad de Educación de Albacete*, 28, 15-23.
- Echeita, G. (2008). Inclusión y exclusión educativa. "Voz y Quebranto". *Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 6 (2), 9-18.
- Echeita, G. eta Sandoval, M. (2002). Educación inclusiva o educación sin exclusiones. *Revista de Educación*, 327, 31-48.
- Echeita, G. y Ainscow, M. (2011). La educación inclusiva como derecho. Marco de referencia y pautas de acción para el desarrollo de una revolución pendiente. *Tejuelo* (12), 26-46.
- Escribano, L. (2010). *La prevención de conductas desafiantes en la escuela infantil. Un enfoque proactivo*. Mexiko: Jit Press, S.A.
- Eusko Jaurlaritz (2010). *Arreta Goiztiarreko eredu Euskal Autonomia Erkidegorako*. Gasteiz: EJ/GV.
- Eusko Jaurlaritz (2012). *Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa 2012-2016*. Gasteiz: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila.
- Galarreta, J. (1999). *Historian zehar Hezkuntza Bereziak izan dituen inertziak eta eboluzioa. Autore garrantzitsu batzuen ekarpenak, irakasleen proiektua*, EHU. Itzultzaileak: Leire Darreche eta Edurne Zenitagoia.
- Gioconda, A. (2016). La inclusión de niños con trastorno del espectro autista: perspectiva psicoanalítica. *Revista San Gregorio*, 11, 106-113.
- Hargreaves, L. (2016). 2. kapitulu: Yo no podría haberlo hecho mejor: niño y profesores aprendiendo de las interacciones en clase. In Mercer, N., Hargreaves, L. eta García Carrión, R. (1. Ed.). *Aprendizaje e interacciones en el aula* (36-50 or.). Bartzelona: Hipatia argitaletxea.
- Hezkuntza, Hizkuntza, Politika eta Kultura saila (d/g). *HEZIBERRI 2020. Hezkuntza-Eredu Pedagogikoaren Markoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- IDEA. (d/g.). *Inventario Del Espectro Autista*. Publikatu gabeko materiala.
- INCLUD-ED. (2011). *Actuaciones de éxito en las escuelas europeas*. Madril: Hezkuntza saila.
- Jordan, R. (2012). *Autismo y Discapacidad Intelectual Grave. Guía para padres y profesionales*. Ávila: Autismo Ávila.
- Martos, J. et al. (2016). *Los niños pequeños con autismo. Soluciones prácticas para problemas cotidianos*. Madril: CEPE Argitaletxea.
- Merino, M. eta García, R. (2011). *Guía para profesores y educadores de alumnos con autismo*. Burgos: Federación Autismo Castilla y León.
- Molina, S. (2015). La inclusión del alumnado con necesidades educativas especiales en comunidades de aprendizaje. *Intangible Capital*, 372-392. Online bertsiota 2017-11-05ean berreskuratuta <http://dx.doi.org/10.3926/ic.642> -tik.
- Muntaner J. (2014). Prácticas inclusivas en el aula ordinaria. *Revista Nacional E Internacional De Educación Inclusiva*, 7, 63-79.
- Parra, C. (2010). Educación inclusiva: Un modelo de educación para todos. *Revista Inclusión Social y Equidad en la Educación Superior*. 8, 73-84.

- Parrilla, A. (1992). *El profesor ante la integración escolar: Investigación y formación*. 127-131 or. Argentina: CINCEL Argitaletxea.
- Pichot, P., López, J. eta Valdés, M. (2001). *Manual de Diagnóstico y Estadístico de los Trastornos Mentales*. Bartzelona: Masson S.A.
- Posada, M. et al. (2004). *Trastornos del Espectro Autista. Una publicación que responde a las "preguntas más frecuentes" planteadas en el autismo*. Madril: Osasun eta Kontsumo saila.
- Rodrigla, E. M. eta Miravals, M. (d/g). *Guía para la práctica educativa con niños con Autismo y Trastornos Generalizados del desarrollo: curriculum y materiales didácticos*.
- Rodríguez, H. eta Torrego, L. (2013). *Educación inclusiva, equidad y derecho a la diferencia. Transformando la escuela*. 19-33. or. Madrid: Grupo ACOGE. Universidad de Valladolid.
- Sainz, A. (1996). *Autismoa haurtzaroan. Komunikazio-arazoak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Salas, M. R. (2016). Reflexiones en torno a los maestros de pedagogía terapéutica. *Revista Padres y Maestros*, 365, 6-11.
- Sapon, M. (1999). Celebrar la diversidad, crear comunidad. Un currículo que ensalza las diferencias y construye sobre ellas. In Stainback, S. eta Stainback, W. (1999). *Aulas inclusivas*. 37-54 or. Madrid: Narcea.
- Sarasa, M.; Darretxe, L.; Gaintza, Z. (2012). *Adimen urritasuna eta autismoa haur hezkuntzako gelan: aniztasunetik aberastasunera*. Bizkaia: UPV/EHU.
- Seguí, G. eta Duran, D. (2011). Efectos del aprendizaje cooperativo en el nivel atencional de una alumna con un trastorno del espectro autista. *Revista de Educación Inclusiva*, 4 (3), 9-20.
- Stainback, S. eta Stainback, W. (1999). *Aulas inclusivas*. Madrid: Narcea.
- Tamarit, J. (1995). Respuesta contextualizada ante las conductas desafiantes en escolares con autismo. In *Equipo Cepri. Actas VIII Congreso Nacional de AETAPI*, Murcia.
- Tamarit, J. (2005). Autismo: modelos educativos para una vida de calidad. *Revista de neurología*, 40, 181-186.
- UNESCO (1990). *Declaración Mundial sobre Educación para Todos. La Satisfacción de las Necesidades Básicas de Aprendizaje*.
- UNESCO (1994). *Declaración de Salamanca. Conferencia Mundial sobre Necesidades Educativas Especiales: Acceso y calidad*.
- UNESCO. (2008). *Inclusive education: The way of the future*. Geneva: UNESCO.
- UNESCO. (2009). *Directrices sobre políticas de inclusión en la educación*. Frantzia: UNESCO.
- UNESCO. (2015). *Educación 2030: Declaración de Incheon y Marco de acción para la realización del objetivo de Desarrollo Sostenible 4: Garantizar una educación inclusiva y equitativa de calidad y promover oportunidades de aprendizaje permanente para todos*. 2018-04-28an berreskuratuta <http://unesdoc.unesco.org/images/0024/002456/245656S.pdf> -tik.
- Ziluaga, F. eta Iturbe, X. (2013). Tertulias dialogicas sobre clásicos universales. *Cuadernos de Pedagogía*, 431 zb., 29-31.
- Zugazaga, A., Uribe, A. M., Rodríguez, A. M. eta Aróstegui, I. (2013). Grupos interactivos al final de la etapa. *Aula de infantil*, 70 zb., 18-21.

ERANSKINAK

# 1. ERANSKINA. Garapen Orokorreko Nahasteak / Trastorno Generalizado del Desarrollo (T.G.T.)



## 2. ERANSKINA. **Baimenak.**

# BAIMENA

## **Lanaren izenburua: Autismoa duten ikasleei eman beharreko hezkuntza erantzuna eskola inklusiboan**

### **LANA / IKERKETAREN INFORMAZIO OROKORRA**

Lan honen helburu nagusia autismoa duten haurren hezkuntza erantzuna hobetzea eta ikaskuntza sustatzea da. Horretarako, bilakaera bibliografikoaren azterketa egin da lanak euskarri teoriko eta zientifikoaren oinarria izan dezan. Horrez gain, ikastetxearen baimenarekin ikasle baten egoera zehatzaren azterketa burutuko da, ondoren, eskola inklusiboaren helburuak eta ikasle guztien presentzia, partaidetza eta aurrerapena kontuan hartuz proposamen bat diseinatzea (Rodriguez eta Torrego (koord.), 2013).

Lan hau aurrera eramateko, metodologia kualitatiboa erabiliko da behar diren datuak jasotzeko; horien artean, elkarrizketa teknika. Elkarrizketek behaketarekin lortu ezin daitekeen informazioa jasotzeko aukera ematen dute. Horri horrela izanik, bizpahiru elkarrizketa burutzea da helburua.

Elkarrizketa 20-30 minutuko iraupena izango du gutxi gorabehera.

Gainera, lanaren zein azterketaren nondik norakoak eta horien aurrerapen eta emaitzak zuen esku uztearen konpromisoa hartzen dut (Gradu Amaierako Lana).

Parte-hartzea **borondatezkoa** da eta edozein unetan eten nahi izanez gero, askatasunez adierazi dezakezu. Erabaki honek ez du ondoriorik ekartzen.

Edozein mementoan eta nahi izanez gero, zerbaiti buruzko zalantzak galdetu eta adierazteko aukera dago.

Lortutako datuak, datuen babesaren lege<sup>1</sup> nazionalaren sostengua daukate. Zure datuak konfidentzialak dira, kodifikatuak izango dira zure anonimatua eta pribatutasuna babesteko.

Baimena ematekotan, mesedez, bete hurrengo datuak;

Informazioa irakurri dut eta ikertzaileak helburuak azaldu dizkit. Ondorioz, proiektu honetan nire borondatezko parte-hartzea baimentzen dut; betiere, anonimatu eta pribatutasunetik.

Ados nago honi buruzko informazioa ematearekin

- Beste irakasle bat gelan izateak duen eragina: **Bai**  **Ez**

---

<sup>1</sup> Dokumentu honekin lotuko diren datu pertsonalak zein informazio guztia 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13a, Izaera pertsonaleko datuen babesa.

- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten haurrak gelatik ateratzeak dituen ondorioak: **Bai**  **Ez**
- Giza-baliabideak eta baliabide materialak: **Bai**  **Ez**

Ados nago elkarrizketa grabatzearekin

- Audio grabatzailea: **Bai**  **Ez**

### **Sinadurak**

---

**Sinadura / Parte-hartzailea**

**Data**

---

**PARTE HARTZAILEAREN IZENA**

---

**BAIMENAREN ARDURADUNAREN IZENA**

# CONSENTIMIENTO

## Título de la investigación: La respuesta educativa que se le debería dar al alumnado autista en la escuela inclusiva

### INFORMACIÓN GENERAL DE LA INVESTIGACIÓN

El objetivo de este trabajo es mejorar y fomentar la respuesta educativa de los niños con Trastorno del Espectro Autista. Para ello, se ha realizado una revisión bibliográfica la cual es el sustento teórico y científico del trabajo. Además con el consentimiento del centro educativo y de la familia examinaremos el caso concreto de un/a alumno/a para poder diseñar una propuesta, la cual no sólo tendrá en cuenta los objetivos de la escuela inclusiva, sino también la presencia, participación y progreso de todo el alumnado (Rodríguez eta Torrego (koord.), 2013).

Por esa razón, me gustaría contar con el consentimiento de la familia para poder observar este/a alumno/a durante las horas lectivas en el aula.

La reunión para informar a la familia de dicha investigación tendrá una duración de 20 minutos aproximadamente.

Tenemos además el compromiso de informarle de los avances y resultados de la investigación (Trabajo de Fin de Grado).

La participación es **voluntaria**, y en cualquier momento si quisiera no continuar su participación, pueden decirlo y comunicarlo.

En cualquier momento estaremos a su disposición si ven la necesidad de cualquier aclaración o ser informados del desarrollo del trabajo

Los datos recogidos son protegidos respetando los criterios de la ley<sup>2</sup> nacional respecto la protección de datos. Sus datos son confidenciales, serán codificados para proteger su anonimato y privacidad.

Si da su consentimiento por favor complete los siguientes datos;

He leído la información y el/la investigador/a me ha explicado también el objetivo, y declaro que estoy de acuerdo en participar en el proyecto voluntariamente, anónimamente y confidencialmente.

Estoy de acuerdo en dar información sobre

- Origen étnico: Si  No

---

<sup>2</sup> Los datos personales e información recogida en este documento están protegidos bajo la ley Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

- País de origen: **Si**  **No**

Estoy de acuerdo que se utilicen datos para la investigación

- Datos: **Si**  **No**

**Firmas**

---

**Firma / Participante**

**Fecha**

---

**NOMBRE PARTICIPANTE**

---

**NOMBRE DEL INVESTIGADOR RESPONSABLE DEL CONSENTIMIENTO**



3. ERANSKINA. **Behaketa gidoia.**

<b>IZEN-ABIZENAK:</b> E. (neska)	<b>ADINA:</b> 5 urte			
	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>BATZUETAN</b>	<b>OHARRAK</b>
1. Autismoa duen haurra gelan dagoenean ikasleak modu positiboan egiten diote harrera. (Laguntzen diote, ez dute bakarrik uzten, bere iritzia kontuan hartzen dute)	X			Ez du inor baztertzen gela barruan egoten denean eta ikasle askok lagundu egiten diote ekintza batzuk egiterakoan. Gainera, beti dago norbaitekin; hau da, normalean ez da bakarrik egoten.
2. Ikaskideak beraien jolasetan parte-hartzera animatzen dute.			X	Bera joaten da askotan bere ikaskideengana egiten ari dena ikusteko. Beraiekin egotera gehien animatzen duten ikasleak bere txokoko taldekideak dira.
3. Taldean egiten diren jardueretan parte hartzen du.			X	Batzuetan PT edo ALE irakasleekin joaten denez, gelako jarduerak ez ditu egiten. Bestetik, hezitzailea gela barruan egoten denean berarekin egoten da eta bere parte-hartzea handiagoa izaten da.
4. Jolas orduan egiten diren jolas gidatuetan parte hartzen du.		X		Bigarren ziklotik, astean bitan (asteartea

				eta osteguna) HH5 urteko hurrei patio orduan jolasak erakustera datoz. Jolas gidatu horietan ez du parte hartzen, baina handik hurbil ibiltzen da egiten dutena ikusteko.
5. Patioan dagoenean beste hurrekin aritzen da.	X			Normalean bere gelakoekin aritzen da, baina alboko gelako ikasleekin ere badabil. Inoiz ez dago bakarrik jolas orduan.
6. Ikasle zehatz batzuekin interakzio gehiago du eta hobeto konpontzen da.	X			Haur eta pertsona guztiak bezala, ikaskide batzuekin beste batzuekin baino harreman hobegoa du. Obsesioa dauka bere gelako mutil batekin eta ilea mutil horrek daukan bezala ebaki du berak bakarrik.
7. Bere emozioak ezagutzen eta erregulatzen ditu. (Nahiak, haserrea eta abar)		X		Oso inpultsiboa da. Asko kostatzen zaio lasaitzea eta zerbait nahi dudanean zarataka hasten da. Adibidez, goiz batean ilea mutil baten antzera ebakita agertu zen gela. Bere amak esan zigun bera bakarrik ebaki zuela makinarekin bere aita komunera joan zen tartetxoan. Kasu horretan, argi dago bere nahiak ezin

				dituela erregulatzen.
8. Ikastetxetik heldu baten laguntzarik gabe ibili daiteke. (Komunera joateko, txamarra eta motxila hartzeko, ilaran jartzeko eta gainerako kideekin batera etxera joateko eta abar).	X			Tutorea beti dago gelan eta berarekin ere asko ibiltzen da. Horrez gain, gela barruan ordu batzuetan hezitzaile batzuk ditu berarekin eta komunera joaten laguntzen dioten. Era berean, PTa gelara etortzen da bere bila eta ez da joaten bera bakarrik gela horretara. Dena den, esan beharra dago inoiz gelatik alde egin duela PTko gelara tokatzen ez zitzaien orduan.
9. Ondo sentitzen da ikastetxean dagoenean.	X			Pozik etortzen da eskolara eta ondo sentitzen dela nabaritzen zaio. Zerbait berririk esan nahi duenean ezagutzen duen edozein irakaslearengana joaten da. Adibidez, “aurpegia pitze” edo “printzesa mutila naiz” (ilea ebaki zuenean).
10. Ikastetxean norbaitekiko atxikimendua erakusten du. (Tutorearen dependentzia du, laguntzako irakasleen beharrezana du...)			X	Orain ez horrenbeste, baina txikiagoa zenean 2 eta 3 urteko geletan irakaslea gelatik irteten zenean korridorera, komunera joateko, alboko gelara joateko edo dena dela, negarrez hasten zen eta askotan bere atzetik joaten zen korrika eta zarataka.

11. Gelaren antolamenduak bere autonomia bultzatzen du.			X	Amara Berri metodologiak gelak txokoetan antolatzen ditu eta berak badaki txoko bakoitzean zer egin behar duten. Hots, espazio bakoitza zeregin batekin erlazionatzen du. Horri esker, bere autonomia bultzatzen da.
12. Gelan irudiak erabiltzen dira umea hobeto kokatzeko (Ordutegian, errutinak, txokoak eta abar)		X		Gelako hormetan hainbat gauza daude, kartelak, egiten dituzten jarduerak eta abar. Baina ez daude irudirik bera kokatzeko eta txoko bakoitzean zer egin behar duen adierazten duenik. Komunean ere, ez dago irudirik berak jakiteko.
13. Talde txikiek elkarrekintza bultzatzen dute.	X			Errazagoa da ikasleak talde txikietan daudenean hizketan aritzea eta haien artean elkarlana bultzatzea. Talde txikiak ez dira soilik onuragarriak HPBk dituzten ikasleentzat, ikasle guztientzat baizik.
14. Talde txiki bakoitzak heldu baten presentzia du.		X		Gelan irakasle bakarra du eta ezin da egon txoko guztietan aldi berean. Dena den, ordu batzuetan hezitzaile bat dago berarekin gelan bertan.

<p>15. Zailtasunak ditu ikasgelan arreta mantentzeko. (Adi egoten da, parte-hartzen du, bere estereotipoetan sartuta egoten da eta abar)</p>	<p>X</p>			<p>Talde handian oso zaila da bere arreta mantentzea. Edozein gauzarekin entretenitzen da eta ez da egoten adi.</p>
<p>16. Interesa adierazten du jarduerak egiterakoan. (Saiatzen da, laguntza eskatzen du jarduerak egiteko eta abar)</p>			<p>X</p>	<p>Bakarrik egiten ari direna interesatzen zaionean. Zerbait nahi duenean eta ezin duenean lortu laguntza eskatzen du.</p>
<p>17. Bere izenez deitzean kasu egiten du.</p>			<p>X</p>	<p>Gehienetan, gorrarena egiten du eta askotan deitu behar zaio kasu egiteko.</p>
<p>18. Aginduak ematen zaizkionean, horiek gogoratzeko gaitasuna du.</p>			<p>X</p>	<p>Aginduak sinpleak izan behar dira eta behin eta berriz errepikatu behar zaizkio.</p>
<p>19. Atzerriko hizkuntzako (ingeleza) saioretara joaten da.</p>	<p>X</p>			<p>Ingeleseko saioretara joaten da beti eta ez da joaten PT edo ALEko irakasleekin. Halere, aipatzekoa da atzerriko hizkuntzako saioretara joaten denean, ez doala hezitzailea berarekin. Ingeleseko irakaslea soilik egoten da gelan.</p>
<p>20. Ikasgelan egoterakoan heldu baten presentzia behar du une oro.</p>	<p>X</p>			<p>Legez, lehen TEA duten ikasleek hezitzaile bat zeukan berarekin, baina murrizketak direla eta orain, ordu batzuetan soilik ematen da egoera hori.</p>

				Ondorioz, tutorea egoten da beti gelan.
21. Hitz egiten du. (Ekolalia, hitz solteak, hitzak eta esaldiak errepikatu hiru edo lau hitzetako esaldiak, sei hitzetatik gorako esaldiak, zein hizkuntza erabiltzen du? euskaraz, gaztelaniaz, errumanieraz eta abar)	X			Esaldiak erabiltzen ditu jadanik. Iazko gabonetan hasi zen hitz egiten eta pixkanaka-pixkanaka hobetzen du. Galderak egiteko gai da eta esaldi sinpleak adierazten ditu. Eskolan euskaraz hitz egiten du beti.
22. Hitz egiterakoan keinuak erabiltzen ditu komunikatzeko? (atzamarrarekin seinatu, esaterako)	X			Zerbait nahi duenean eskuekin seinalatzen du, baita lekuren batera joan nahi duenean.
23. Hitz egiterakoan aurpegira begiratzen du.		X		Beti esan behar zaio lasaitzeko eta aurpegira begiratzeko, baina gehienetan ez da hori lortzen.
24. Ikaskideen izenak dakizki.	X			Bere gelako kideen izenak ez ezik, alboko gelako ikasleen eta ikastetxeko zenbait irakasleen izenak ere dakizki eta ahoz adierazten ditu.
25. Galderak egiten zaionean erantzuteko gai da.			X	Batzuetan galderei erantzuten du, baina beste batzuetan ez du kasurik egiten. Beste gai batzuei buruz aritzen da

				galderari ez erantzuteko.
26. Informazioa eskatzeko gai da. (Nor da?, nork egin du?)	X			Zerbait interesatzen zaionean galderak egiten ditu. Adibidez, ordenagailua eramaten dudanean gelara berak galdetzen dit ea norena zen hori. Egun batean, gure gelan ordenagailuko bi pantaila ikusi zituen eta berak galdetu zigun ea zergatik genituen bi eta nork ekarri zituen.
27. Gainerakoek egiten dituzten ekintzekiko interesa adierazten du. (Besteek egiten dutena egin nahi du, modu kooperatiboan ekin nahi du eta abar)			X	Bere interesekoak badira horietan parte-hartu nahi du eta bere nahia adierazteko gai da.
28. Heldu batekin interakzioan hasteko gai da.	X			Galderak egiten ditu eta askotan ekarri dituen gauzak kontatzera etortzen da guregana.
29. Nagusi baten bitartez ematen dira elkarrekintzak.			X	Gelan daudenean, batzuetan irakasleak egiten ditu galderak edo gairen bat aurkezten duenean ikasleen aurreiritziak entzuten ditu. Baina ikasleen artean elkarrekintzak ematen dira heldu baten presentzia egon gabe (patioan, gelak, korridoreak, komunean eta abar).

<p>30. Interakzioak une desberdinetan ematen dira. (Noiz? Korroan, talde handian, txokoetan, ikasle batzuekin bakarrik eta abar)</p>	<p>X</p>			<p>Patioetan interakzio ugari ematen da eta gelan talde txikietan. Halere, ikasle batzuekin harreman gehiago izaten du gelan eta horiekin izaten duen interakzioa nabariagoa izaten da.</p>
<p>31. Egoera berriei ohitzeko gaitasuna du.</p>		<p>X</p>		<p>Asko kostatzen zaio errutinatik ateratzea eta oso urduri jartzen da.</p>
<p>32. Gelatik ateratzen da beste espezialista batzuekin egoteko.</p>	<p>X</p>			<p>PT eta ALEko irakasleekin egoteko gelatik ateratzen da eta beste eraikin batera joaten da. Beraien ustez, beharrezkoa da arreta indibiduala eskaintzea, gelan ez dagoelako adi eta ezin dutelako ikaslearen aurrerapenak lortu. Gainera, gelan 23 ikasle daude eta irakasleak bakarrik ratio horri aurre egiteko zailtasunak dituela adierazten du. Batez ere, HPBak dituen ikasleei erantzun ona emateko.</p>
<p>33. Talde txikietan hobeto lan egiten du.</p>			<p>X</p>	<p>Talde txikietan hobeto egiten du lan, ez daukalako horrenbeste estimulu entretenitzeko. Dena den, oso zaila da bere arreta mantentzea, berdin dio talde</p>



				handia edo txikia den. Bere taldekideak asko laguntzen diote.
--	--	--	--	---

#### 4. ERANSKINA. Elkarrizketak.

## **PT-ari ELKARRIZKETA**

- 1. Lehenengo eta behin, oso interesgarria izango litzateke zure lana zertan dantzan pixka bat deskribatuko bazenu. Adibidez, zein motatako baldintzak behar diren ikasle batek zure arreta behar izateko, nola erabakitzen den izango dituzun ikasleak eta abar.**

Bueno, PT baten ikasle guztidexek beti, beti, beti etorri behar dira zerrenda batean. Berritzeguneak egindako zerrenda batean, bestela ezin dira PT ikasleak izan, nahiz eta PTok gela barruan sartzen garenien, esku-hartzea egiten dugu zabalagoa. Ez da izaten hain zuzena menpekotasuna ez sortzeko, bestela gure ikasleak ohitzen dira gure arreta edukitzen beti, beti eta bere autonomia ere landu behar da. Komeni da, Amara horretarako oso egokia da guretzat txoko batean sartzen zaralako eta txokoko ikasle guztiekin esku-hartzea duzulako. Gure ikasleak, eskola honetan batez ere, egiten duguna da, zuk be jakingo duzu ba ze Haur Hezkuntzatik be ibili zara, hemen erabiltzen ditugu eskalak daudenak duela ez naiz akordetan baina lau bost urte elkartu ziren diputazioa eta delegazioa eta eibien hezkuntza eta osakidetza...

- 2. Bai, Haurren Garapenerako Protokoloa.**

Bai, eskalak. Protokoloak garatu zituzten eta hemen sistematikoki erabiltzen dira 2, 3, 4 eta 5 urteko ikasleekin. Dena den, normalien tutoreak eta batez be esperientzia duen tutoreak gela barruan ikasleak dekoz eta ikasle horiek dira normaltasunaren ereduak. Baten bat ikusten badute ez dela bestien beste edo bestien modukoa ya alertak sortzen dira. Screening horrekin alerta horien sistematizatzen dira, orduan, errazagoa da eskaperik ez egotea. Dena kontrolpean izatea. Behin detektatuta zerbait dagoela...

- 3. Eskala horiek irakasliek eitxen dauz pasa, ezta?**

Bai. Ikasleren baten arazoren bat nabarmentzen bada, aholkulariarekin hitz egiten da. Aholkulariak gurasoekin, aholkulariak eta tutoreak gurasoekin elkartzen dira eta umearen behaketa egiten da. Behaketaren ostean, Berritzeguneak hartzen du esku-hartzea eta Berritzeguneak zerbait, gaur egun beharizan asko daudenez, diagnostiko sendo bat behar da Berritzeguneko zerrendetan egoteko. Orduan gure ikasleak bihurtzen dira. Gero zelan banatzen ditugun ikasleak? Aholkulariak ikusten du PT bakoitzak zelako edo non dekon esku-hartze hobeagoa eta eskola honetan, ikasle asko ditugunez

zerrendetan, 40 baino gehixau. Orduan, egiten dogu ziklotan banatu PTok, ez beti horrela baina irizpide bat holan aputxu bet lana errazteko, ez?

**4. Ematen diezun arreta indibiduala edo taldekoa da? Zein iruditzen zaizu inklusiboagoa? Zergatik?**

PTaren arreta ikaslearen beharren arabera izaten da. Nik, bueno beti, beti nahi dugu, batez be, Haur Hezkuntzan, esku-hartzea gela barruan izatea. Zer gertatzen da? Batzuetan ikaslearen beharrianak oso, oso indibidualak direla, beharrian berezidzek. Adibidez, zuk ezetzen dozune, ez dogu izenik emango baina ikasle batzuk behar dabe komunikazio mota desberdinek, baliabide asko, material asko... Orduan, halakoekin saio berezia aprobetxatzeko oso ondo, baina zerbait zehatza lantzeko gelatik atera behar dira eta laguntza gelan egoten dira. Bestela, ahalegintzen gara beti gela barruan egotie.

Nik ez dot beittuten inklusiboa edo eskusiboa. Nik ikusten dot umearen beharra zelan arazo bakoitzean, zelan emon erantzunik onena. Inklusibitatea lortzen dute saio guztietan, kontua da PTa dala baliabide oso garestia eta PTaren saioak oso ondo, oso ondo erabili behar direla. Orduan, zuk egin behar duzuna da erantzun eraginkorra.

**5. Zure ustez zertan datza eskola inklusiboa? Zer ondorio ditu Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleengan? Eta gainerako ikasleengan?**

A ver, nik uste dut eskola inklusiboa... hemen ez daudela Heziketa Bereziako ikasleak eta kanpoko ikasleak. Hemen denak dira ikasleak eta nik uste dut eskola honetan, oso ondo erantzuten dala ezberdintasunari daukagulako Heziketa Bereziako ikasleak eta baita etorkinak eta beharrian afektibo berezidzek... Ikasle bakoitzak deko beren beharrianak eta orduan, bakoitzari beitu behar zaio unitate bezala eta ez... Eta denak daukate lekua gure eskolan, denak. Denak dira tutorearen ikasleak. PTok egin behar dogu ikasle hori gela barruan ahalik eta normalen egotie, horregaitik egiten ditugu ahal ditugu egokitzapen materialak eta espazialak ikasleak barruan egoteko. Ezin denean edo laguntza berezia behar denean, orduan irteten dira baina bestela ez. Eta eskola inklusiboa ez dut bakarrik Heziketa Premia Berezidun ikasleekin, danak, pertsona guztiak daukagu momentu batean gure bizitzan beharrianak digula, eta eskolak erantzuna eman behar die.

**6. Eta gainera adina aurrera joan ahala beharrianak ere aldatzen dira.**

Eta egoerak, gure gizartea ez da lehengo modukue edo behintzat ez da betidaniko modukue. Egoera pertsonal asko daude: banaketak, dekoguz Gurutze Gorriarekin

etorritako errefuxiatuak, dekogu beharrian emozional asko dituzten ikasleak eta bizitza normalean ere egoera aldaketak. Orduan, denei eman behar zaie erantzuna eta ez bakarrik HPBkoei. Danari.

**7. TEA duen ikasle batekin lan egiteak zuk une honetan daukazu formazioa baino espezializazio handiago bat eskatzen du?**

Ba a ver... galdera pertsonala da? Beitu, nik daramatzat 24 urte PT moduan. Lehenengo lizentziatu nintzen pedagogian, gero bi urte einjot masterra Heziketa Berezia eta gero einjot formakuntza beste bi urte PTn. Einjot bi urte ALEn eta bi urte logopedan. Eta gero einjot magisteritza Haur Hezkuntzan. Nik uste 14 urte izan direla. Horrek danak ez dira ezertarako balio ez badozu esperientzia pertsonala kasu askorekin. Eta gero, formakuntza nabarmena. Esperientzia puntu asko dira halako kasuetan, baina badira kasu gero eta ugariagoak eta beharrian handiagoak. Orduan, behar dogu gero eta esperientzia gehiago, formakuntza gehiago eta gero eta gehidxau gauz ikesten zelan doiezen, ze beharrianak dituzten... ba ze da kasu oso berezia. Espekto bat da eta espekto hori doa idxe-idxe igertzen ez zaienei arazo handidxe dekiena. Gero eta kasu gehidxau detektatzen ari dira. Azkeneko zurrumurrua edo azkeneko formakuntzetan esan dabe direla ongarridxen kontue edo egon direla arazoak hor, bueno hortik doaz, kromosoma bi...

**8. Esaten dozun moduen, zeure formakuntza nahiko konpletue da eta esaten dan moduen, irakasliek ez dogu paraten ikesten. Beti gauz ikasten.**

Bai, ezin da.

**9. Uste duzu beharrezkoa dela zure esparru profesionalean norbaitekin hitz egitea zure ikasleen arazoei buruz?**

Ezinbestekoa da. Guk hemen, gure ikasliek dekiele arreta pluridiziplinarra. Guk dekogu alde batetik C.R.I.-ko jendea, logopedak, fisioterapeutak, danakin egiten dogu lan eta denekin ACIa ni ahalegintzen naz... Dekotez ikasle batzuk ez dekiena mugimendurik, gorputz hezkuntza ez da, ez dekiele sentzinorik. Hor zerbait eiteko ACIan, fisiogaz ezinbestekoa da lantzie. Gero euren terapeuta okupazionalak esan behar dosku zelan egin klasiak, zelan ipini mahidxek, zelan materiala ekarri, egokitu. Bi ordenagailu dekotez portatil bi ikasle bakoitzentzat oso desberdinek. Danan arteko lana ez bazan izango, ezinezkoa izango zan.

**10. Uste duzu irakasleriaren prestakuntza egokia dela ikaskuntzan zein garapenean arazoak dituzten ikasleei hezkuntza erantzun egokia emateko?**

Hori erantzuna, igual, tutorearen erantzuna izan beharko litzateke, ez? Nik praktiketako ikasle dezente izan ditut eta formakuntza, oinarrizko formakuntza PTkoa eta unibertsitate desberdinetatik etorri dira eh! Nahiko urrun dago errealitatearengandik. Bai behar dut... es que esperientzia beharrezkoa da. Esperientzia eta zuk esan duzuna egunerokotasunean ikesten, ez dekozu besterik.

**11. Irakasleak (tutoreak) eta laguntza irakasleak elkarlanean planifikatzen dituzte landuko diren gaiak eta egingo diren jarduerak? Ebaluazioan nola parte hartzen duzu?**

Bai, ebaluazioetan derrigorra da egotie. Ganera, hor bideratzen doguz kasoak eta asko. Egia da, denbora gehiago beharko genuke egiteko batzarrak. Askotan, guk kotxean goazenean egiten dogu, es que ez dosku emoten bizitzak, ez dekogu saio nahikorik behar ditugun batzarrak izeteko. Inoiz ahalegintzen eta lortu dot eskusiba izatea tutoreak egiten dutenean programazinoa aste osokoa eta hor itzel izeten da. Baina klaro ni nago hiru ziklotan, oso gatza dekot aurton adibidez hori eitxie. Bai, ideala da eta ahalegintzen gara baina ez dogu eiten nahi dogunean beti. Niri gustatzen jat, umie bile joaten naz eta umie etregaten dotenien “bittu hau ein dogu” edo bile noanien “nondik zoazte” eta holan. Baina nahiko informala izaten da.

**12. Zeintzuk izaten dira zure ikasleak behar dituzten edota aplikatzen dituzu baliabide eta egokitzapenak?**

Uff, es que neure ikasliek oso desberdinek dira bata bestiengandik eta ez dekue zerikusirik. Es que gauza oso ezberdinek. Batzuekin landu behar dogu ahozko adierazmena, beste batzuekin emozinoak, harremanak, pertzepzioa... Pertzepzioarekin hasten naz osea... TEA dekien txikidxeekin pertzepzioa landu behar dozu. Bakarrik objektuak ikusi perspektiba desberdinetatik. Mile gauza desberdin dauz.

**13. Eta TEA ez daukaten umiekaz, adibidez nire gelan beste bat dago eta alboko gelan beste bat. Horrekin adibidez, taldean egoten dira biak elkarrekin?**

Bai, baina hori izen da apurtxu bet ordutegi kontue. Ezin dalako, klaro, ezin dira banakako saioak emon eta orduan, batzutan elkartu behar dituzu. Ahalegintzen zara gela berdinean izeten umiek, baina batzuetan ezin dana edo ezin denien ba elkartzen dituzu hemen. Zure gelan dauena deko, batez be, alde motorrekoa kaltetuta eta indar behar

dena; orduan, lantzen dogu motrizitatea, baina berarekin irteten denak deko ahozko adierazmena eta hizkuntza arazoak. Orduen, egiten dogu bien arteko harremana sendotu.

**14. Zure helburuen artean ikaslearen independentzia sustatzea da? Ikaskuntzan zailtasunak dituzten ikasleen arteko elkarlana bultzatzen du?**

Independentzia lortzeko, lehenengo oinarri bat izan behar dute. Inor ez da independentea ezin duenean, orduan, lehenengo baliabideak eman behar zaizkie independentea... independentea ez, euren beharrianak asetzeko, ez? Eta elkarlana Haur Hezkuntzan eta edozein pertsonatan, arlo soziala da oinarrizkoena. TEAn da zutabe bat, orduan, beti landu behar da.

**15. “E”rekin gela barruan lan egiten duzu? Nola? Zergatik?**

Hor deko beste, beste... a ver, ikasle horrekin gela barruan lan handia dau. Lan handi, handi, handia, ba ze hor dago benetan lana, Bai? Gertatzen dena, PTok ez gaudenien ikasle horiekin egoten direla hezitzaileak edo eta orduan, nik zer eitzen dot? Hezitzaile horien lana bideratu, bai? Orduan, ni barruan enazelez egongo, hezitzaileekin adosten dot edo alegintzen naz adosten ba ze asko dira, oso gatza deko murrizketekin... horregaitxik greba egin dogu. Murrizketak dekie, lehen TEA dun ikasleak zuzenien, beharrianak direla eta, hezitzaile bat zeukan. Orain, kasu... zuk dinezun kasuan, ez dago hezitzaile bat berantzat. Orduan, beste irakasleak, fisio, logopeda edo PTn dauden bitxartien, horien hezitzaileak daude ikasle horrekin gela barruan. Oso gatza da. Gaur egun, hezitzaile lana eta PT lana ez da hain errez bereizten, ba ze hezitzaileak dira.

**16. Gela barruan egoten diren laguntza irakasleak (auxiliarra) ikasgelari eta curriculumeko alorrari lotuta daude edo ikasle zehatz batzuei soilik laguntzen diete?**

Klaro. Normalien hori, klaro. Hori pertsonalen kontua be bai. Legez, beragaz baino ez diez egon biher. Gero, Amarak bai planteatzen deu PTn lana ez dala “señorita de compañía” izetie, izan behar dozula txoko guztiaren baliabidea. Amarak eta PTn lana ere argi dago ez dozula sortu behar halako menpekotasunik ez bada kasu bereziren bat, ez duela mugimendurik edo kasuaren kasu. Ikusi ein bidiez beharrianak, ez? Baina bai oin komentatzen ari garen kasuan nahiko ganiien egon bizara, ze nahiko inpulsiba da. Orduan, ez da izeten hain errez beste inori laguntza emotie, beragaz nahiko daukazulako, baina bueno...

**17. Ikasle baten garapenari buruz kezka daudenean, hezkuntza taldeak arazoak konpontzen saiatzen da ikastetxe barruan zein kanpoan? (Familia aholkatzen, eskolaz kanpoko zerbitzuak gomendatzen eta horiekin harremanetan jartzen eta abar.)**

Bai, bai. Familiei bideratzen diegu normalean elkartietara: ba dislexia bada dislevia, Apnavi autismoa badago. Hor kontutan izanda sei urtetik beherakoentzat adimen txikidxeekin, eitzen da... dago diputaziotik ere... eee... “atención temprana” Arreta Goiztiarra. Orduan, hortik be bideratzen dogu eta ya alegintzen gara kasu bakoitzean euren elkartetik bazkideak edo izatea. Familiaren arabera eh, zuk gomendatzen dozu eta gero erabakia euren da. Batez ere, arreta psikologikoa ere izaten dutelako eta gurasoek halakoetan laguntza behar izaten dute. Dena den, gurekin asko jotzen dute eta PTen harremana gurasoekin oso, oso zuzena dalez, beti komentatzen dute gurekin beharizanak edo.

**18. Hezkuntza, osasun eta zerbitzu sozialen arteko koordinazioa eta laguntza bultzatzen da ikasleentzat eta beraien familientzat? (Adibidez, pediatriekin hitz egin, kanpoko zerbitzuekin harremanetan egon eta abar.)**

Bai, bai, bai. Pediatriekin normalien aholkularidxe egoten da. Aholkulariaren figura da kanpoko erakundeekin hartu-emanak izetie, baina zer gertatzen da? Azkenean ba gu dekogu harremana, badinotzut, C.R.I eee, zerbitzu sozialekin beharizanak daudelako, diputazinoarekin, eee terapeuta okupazionalak. Gero dekogu sindrome Down elkartea, Apnavi, Aspace... harekin dekoguz hartu-emanak ikaslien garapena bultzatzeko eta adosten ditugu helburuak eta aurton izen da “un poco lio” Gerniketan egon dan gabinetean diputazinoarekin bat eginda arreta goiztiarra emateko itxi ein dabe, ez dabe lortu homologazioa. Orduan, eduki ditugu arazo eta aldaketa asko eta orain, beste erakunde batzuekin ere elkartzen gara baina beti dekogu hartu-emonak, beti, beti.

**19. Familiarekin modu koordinatuan lan egiten duzu? Nolakoa da beraien parte-hartzea? Zaila al da familiaren kolaborazioa lortzea?**

Bai. Familiaren arabera, hori danan bezala baina normalien ez. Normalien, danak nahi dogu ikasle horren ongizatea eta danok ahalegintzen gara helburu berdinarik pasatzen. Hor familia batzuk denbora gehidxa behar dabe, bere emozinoak ere kontutan izan behar dira, ba ze Heziketa Premia Berezidun ikasle bat duzunean, gurasoek hor duelo bat eta emozino asko landu behar izan dute. Orduen, laguntza eta ulertu egin behar zaie ere. Gu gauz laguntzeko, ez inori epaitzeko, ez.

**20. Zure ustez, eskola publikoak HPBak dituzten haurrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak ditu?**

Beti hobetu ahal da, baina nik uste dut profesional oso onak daudela inguruan eta oso ondo egiten dala lan. Bueno, bagoaz aurrera, ez? Orain heldu zaizkigu arbel digitalak, bagoaz astiro-astiro. Bagoaz aurrera. Nik gehidxau ikusten dot oin esan duzula publikoan, nik uste dot eskola publikoak eitzen dauela itzelezko lana Heziketa Premia Berezia eta agian, Heziketa Premia Berezien ikasle asko publikara bideratzen dira eta hori be ez dot hain... Ni pozarren, ba ze nire ikasliek dira, ni pozarren nau. Baina nik uste dot beste eskola kontzertatuak ere, beste horrenbeste egin beharko luketela.

**21. Inklusioa eskola guztietan bultzatzeko eta ez bakarrik eskola publikoan, ezta?**

Bai, hori da.

**22. Uste duzu beharrezkoa dela hezkuntza baliabideak eta neurriak aldatzea? Eta hezkuntza praktikak?**

Niri Finlandian dagoena asko gustatzen zait: tutore bi gela barruan, talde txikiagoak... baina hori da ideala, gero errealitatea da dauena.

**23. Ideala eta hori da hezkuntza inklusiboaren printzipioetako bat: irakasle bi gelan egotea, materialak...**

Sortzea, pertsonalizatua. Niri asko gustatzen zaizkit eurengan egindako... eurek protagonistak izetie ipuinetan. Hemen ABNren materiala oso polita da, orduan, nire ikasle batzuekin matematikak ulerkorak izeteko ABN erabiltzen dut. Baina hor nahiko... ba ze nik dekot ikasle bat ez dauela ondo ikusten, ezin dabena manipulau oso ondo. Orduan, ezintasuna eta autismoa eta gauza asko dekozen haurra, konkretua egin behar duzu abstraktua dana. Orduan, baliabide asko behar direla, baina hori lan eiteko gogo apur batekin eta irudimen apur batekin lortu ahal dira gauza asko. Ezin dana lortu da talde txikidaxauak. Niretzat ideala izengo zan koordinazio askoz be gehidxau izatia, baina bost eksklusibatik hiru gelditzen zaizkigu batzar barik eta hiru horiek dira ya materiala ere prestatzeko. Agian, planteamendua aldatzen jun biko gara: saio gehidxau, ez dakit, ez dakit. Nire teilaturi kalte eitie da, baina nik uste dot gehiago mugitu beharko ginatkeela. Dena hobetu daiteke.



**24. Zer eskatuko zenioke administrazioari?**

(Barre egiten du). Baliabide pertsonal gehiago. Nik uste dot, a ver ez dekogu kopuru... ikasle kopurua ez da horrenbestekoa, baina beharizan askoko ikasleak dekoguz, orduan, tutore bi gela barruan ez ziren kafea hartzen, badinotzut. Lan dekogu danok eta asko. Nire ustez...

**25. Bai, nire gelan nau irakaslegaz eta ez gara paraten.**

Ez, niri Amara gustatzen zait dekolako lau txoko eta bakoitzak beren txokoan lan egiten dauela, autonomia. Nahiko dinamikoa dala. Eta sortzeko, gauzak dauz hobetzeko nik ez dinot dala “la panacea”, baina gure ikasliek...

**26. Badakidxie zer egin txoko bakoitzean.**

Bai. Nire ardurie TEA dala eta, ni... metodologia TEACH ezagutzen dozu? TEACH oso pautata dago eta espazio bakoitzak zeregina deko eta hasieran, Amara niri bilurre emoten eustan TEA umiekin, batez be, lehengo ziklirako salto eiterakoan horrenbeste gela eduki izanda, pentsaten neban “ene bada marie ingo jatez”. Baina ez, txoko bakoitzak bere betebeharra dekolez, umiek lotzen dabe espazio konketro bat betebehara batekin eta oso ondo dago.

**27. Zerk laguntzen du familiaren kolaborazioa lortzen?**

Gure hurbiltasuna. Ikusi behar dabe gu laguntzak garela eta ez garela eureri aztertzen diegunak. Ikusi behar dabe gure jarrerie dala hurbile, eureri laguntzeko ez beste ezertarako. Eta ikusten dutenean zu zaudela euren seme-alabak laguntzeko, euren helburua bera denez, bat eitzen dabe. Hasieran, batzuek behar dabe denbora hori, ba ze dueloa egiten daude. Ez da euren ametsetako umie, arazodun ume bat. Baina gero ikusten dabe beren seme-alaba arazoak eduki arren, beren seme-alaba dela eta maite dutela. Orduan, astiro-astiro prozesua alkarregaz jun behar gara eiten. Zu joan behar zara laguntzen eurek onartzen duten laguntza emonez, ba ze hasieran igual ezin dute. Baina astiro-astiro lortzen da.

**28. Eskerrik asko zure parte hartzeagatik eta galdera hauei erantzuteagatik.**

Ez horregaitik.

## ALE IRAKASLEARI ELKARRIZKETA

1. Lehenengo eta behin, oso interesgarria izango litzateke zure lana zertan dantzan pixka bat deskribatuko bazenu. Adibidez, zein motatako baldintzan behar diren ikasle batek zure arreta behar izateko, nola erabakitzen den izango dituzun ikasleak eta abar.

Hizkuntza eta Mintzaira irakasleak, hizkuntza eta komunikazio arazoak dituzten ikasleekin lan egiten dut. Laburbilduz hizkuntzaren atal hauek lantzen ditugu:

1. Aurre-hizkuntza: atentzioa, ikusmen eta entzumen diskriminazioa, erritmoa, keinuen ulermena eta imitazioa.
2. Anatomikoa-funtzionala: erlajazioa, arnasketa, putza, praxien errepikapena eta ekoizpena (ahoa, mingaina, ezpainak, masailezurra, masaila eta ahosabaia mugimenduak).
3. Fonetika- Fonologia.
4. Lexikoa- Semantika: hiztegiaren, deskripzioan, aginduen etab.-rren ulermena eta adierazpena.
5. Morfosintaxia: esaldi estruktura, konkordantzia, denbora sekuentzien ordena etab.

Beste alde batetik, ikasle batek ALE laguntza jasotzeko bete beharreko esku hartze irizpideak hauek izango lirateke:

— Hizkuntzaren alterazio eta nahaste-motak direla eta, eskolako logopediak hezkuntza-izaera duela aintzat hartuz gero, esku-hartze logopedikoa jaso dezaketen ikasletzat joko dira hizkuntzaren alorrean edo komunikazioaren eremuan hezkuntza-premia bereziak dituztenak, ondoko nahasteen ondorioz:

- Hizkuntza-nahaste larriak —**hizkuntza-atzerapena, hizkuntzaren nahaste espezifiko (disfasia) eta afasia**—, baldin eta ahozko hizkuntzaren bitartez egiten den komunikazioa arrisku larrian jartzen bada, ikaslearen ulermen- eta adierazpen-mailak defizitarioak direlako.
- Hizkuntza-atzerapen edo -nahastea, **adimen-urritasunari lotua** —adimen-atzerapen arina eta adimen-atzerapen moderatua—, esku-hartze honetan, betiere, ikasleari parte hartzen dituen inguru edo giroetan funtzional gerta dakioketena hartuko da kontuan.
- Hizkuntza-atzerapen edo -nahastea, **nerbio-sistemaren gaixotasunei lotua** haurren garun-perlesia, nerbio-sistemaren gaixotasun hereditario eta degeneratiboak, eta abar gaixotasun horiek ahozko hizkuntzaz -adierazpenaren aldetik batez ere- jabetzeko aukera arriskuan jartzen dutenean.

- Komunikazio- eta hizkuntza-arazo larriak, **garapenaren nahaste orokortuari eta adimen-urritasun larri eta sakonei lotuak.**
- Komunikazio-arazoak, portaeraren eta nortasunaren nahastei —**mututasun selektiboa**— eta disfemiari lotuak.
- Hizketa-arazoak **-nahaste fonologikoa, dislaliak eta disglosiak-**. Dislalietan, esku-hartze logopedikoa zilegi izango da —garapen ebolutiboaren irizpide naturalei men egiten badie eta curriculum arrunteko programak ordezkutzen ez badira, betiere ebakera— edo artikulazio-zailtasunak ugari direnean, hizketa ulergaitz bihurtzen denean, eta irakurtzen eta idazten irakasteko eta ikasteko prozesuari enbarazu egiten diotenean. Disglosietan, aldiz, hizketaren garapenarekin zerikusia duten alderdietara joko du esku-hartzeak, larritasunaren irizpidea kontuan hartuta, baita zailtasun horrek ikaskuntza-prozesuan duen eragina ere.
- **Entzumen defizita edo gorreria.** Entzumen urritasuna dutenei arreta egiteko programako logopeda espezialistek hartuko dute bere gain esku-hartzea.
- Aurreko guztia horrela, ondoko aldagaiak kontsidera ditzakegu eskolan, hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenean esku hartzeko:  
— Hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenari lotutako hezkuntza-premia berezien etiologia:
  - A. Arrazoi sentsorialak
  - B. Arrazoi neurologikoak
  - C. Arrazoi psikikoak
  - D. Adimen-urritasuna
  - E. Erritmoaren nahasteak
  - F. Arrazoi organikoak
  - G. Heltzeko moteltasuna
  - H. Artikulazio-nahaste funtzionalak.

*Aurreko informazioa (garatuago) hurrengo web orrian aurkituko dozu:*

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/eu\\_neespeci/adjuntos/18\\_nee\\_110/110028e\\_Doc\\_Varios\\_lenguaje\\_comunicacion\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_neespeci/adjuntos/18_nee_110/110028e_Doc_Varios_lenguaje_comunicacion_e.pdf)

## **2. Ematen diezun arreta indibiduala edo taldekoa da? Zein iruditzen zaizu inklusiboagoa? Zergatik?**

Nik ikasleei emandako arreta bi motatakoa izaten da, bai indibiduala baita taldekoa ere. Erabaki hori ikasleen kasuen arabera hartzen da, baita hauen beharrianen arabera ere. Saiatzen gara talde lana sustatzen eta horretarako, adina eta beharrianak kontuan

hartzen ditugu. Taldeka aritzea lagungarria izaten da ikasleentzako zein irakasleentzako, dinamika gehiago sortzen delako eta hauekin jolasteko aukerak handitu egiten direlako; nik talde lanaren alde egiten dut beti. Ikasleek ikasi behar dute elkarren artean sozializatzen, gauzak partekatzen eta konturatzea ez direla laguntza behar duten pertsona bakarrak. Kasu batzuetan, ordea, laguntza indibiduala eskaintzen da, etekin gehiago ateratzeko. Argi dago, laguntza mota hau inklusioaren aurka doala. Izan ere, ikasleak bere ikasgela eta ikaskideak usten ditu aparteko laguntza bat eskuratzeko.

**3. Zure ustez zertan datza eskola inklusiboa? Zer ondorio ditu Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleengan? Eta gainerako ikasleengan?**

Inklusioa hitza ikasleak gelaren parte izatean datza, ikaskide guztien bateratasuna eta berdintasuna, halabehar, eskusioaren antonimoa. Ordea, ikasle batzuek ordu asko pasatzen dituzte gelatik kanpo banakako laguntza jasotzen (PT, ALE, HIPI, psikologoa eta beste hainbat espezialisten laguntza). Argi dago kasu askotan laguntza hau beharrezkoa dela eta ikasleek esku-eman bat behar dutela haien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Baina non dago muga? Zenbat denbora pasatu gelatik kanpo, bere ikaskideetatik urrun?

Kasu batzuetan zaila da asmatzea nor den ikaslearen benetako tutorea, nor arduratzen da beraz eta nork dakizki bere egunerokotasuneko aurrerapenak (PTa, hezitzailea edo eskolako tutoreak?).

Hainbeste ordu pasatzen dituzte gelatik kanpo zeinetan, jada, eskusio maila altu batera heldu gara. Bestetik, HPBdun hainbat ikasleentzako tutoreek ez dute lanik egiten bere inklusioa bermatzeko. Ikasle hauek ez dute gelako ikaskideekin sozializatzen eta hezitzailea bihurtzen da ikasle hauen benetako tutore.

Eskola honetan, gainera, harrigarria eta oso aipagarria den egoera bat dago: HPBko ikasleentzako eraikin espezifikoa bat dagoela eta HPBko ikasleak eraikin horretara bidaltzen dituzte. Inklusiorik ba al dago hor?

**4. TEA duen ikasle batekin lan egiteak zuk une honetan daukazu formazioa baino espezializazio handiago bat eskatzen du?**

Bai, argi dago. Nire ustez, TEA-dun ikasleekin beti dago zerbait berria ikasteko eta une oro teknika, metodo, material berria aurkitzen eta praktikan jartzen ibiltzen gara. Arazoa ez da soilik hizkuntzan, mintzairan edota idazten edo zenbakiak irakurtzen ez dituela;

TEAdun ikasleekin alde emozionalak, sozialak, testuinguruak, egunerokotasunak ere paper garrantzitsua daukate. Ikasle hauei lagundu egin behar zaie bere mundua ulertzen, ordenatzen eta autonomoki maneiatzen irakasten. Faktore asko hartu behar dira kontuan eta alde handia dago ikasle batetik bestera.

Unibertsitateak irreten garenean ez gaude ondo prestatuta TEAdun ikasleei erantzun egokia emateko. Bertan, ez dira kasu praktikoak behar adina lantzen, den dena teoriaraino oinarritzen da. Nik falta handia sumatu dut metodologia, material eta praktika aldetik (unibertsitateko urteetan). Ondoren, eskolara gatozenean, ikasle errealekin lan egitera, konturatzen zara ez dakizula egoera nola maneiatu. Orduan hasten da benetako ikasketa: zure esperientzian eta esan bezala baliabideak aurkituz eta zuk praktikan jarriz ikasten duzunean.

**5. Uste duzu beharrezkoa dela zure esparru profesionalean norbaitekin hitz egitea zure ikasleen arazoei buruz?**

Beharrezkoa eta derrigorrezkoa. Ikaslearen hezkuntza prozesuan parte hartzen duten irakasle guztien koordinazioa ezinbestekoa da. Hala eta guztiz ere, haurra laguntzeko eta zure burua antolatzeko, zure lankideen ikuspuntuak eta iritziak oso aberatsak dira. Nik beti laguntza eskatzen diet; ezagutzen ez ditudan materialak edo metodoak irakatsi dizkirate. Eta bestetik, denok lan berdina egiteko helburuaz, koordinatu egiten gara eta ikaslearen egoerari buruz hitz egiten dugu.

**6. Uste duzu irakasleriaren prestakuntza egokia dela ikaskuntzan zein garapenean arazoak dituzten ikasleei hezkuntza erantzun egokia emateko?**

Nik nire buruaz hitz egingo dut. Aurreko galderatariko batean ere esan dut. Ni unibertsitateak irten nintzenean konturatu nintzen ez nekiela ezer ere ez. Lanean hasi nintzenean are gutxiago; hor hasi zen nire egiazko ikaskuntza. Teoria asko dago eta hau beharrezkoa da praktikan jartzeko eta hori gabe ez dago jakintzarik. Halere, orokorrean arazoak topatzen ditugu ikasle hauen esku hartzea diseinatzerako orduan. Izan ere errealitatea teoriatik at dagoelako.

Nire ustez, esperientziatik, gauza berriak probatuz, behaketez etab. asko ikasten dela eta normala dela hasiera batean zure burua ez-gaitu bezala ikustea.

Hala eta guztiz ere, eskola honetan dauden irakasleek urte askotako esperientzia eta jakituria daukate eta gauza berrien aurrean, beharbada, laguntza beharko da eta ez

dakigunaren sentsazioa presente izango da, baina ekimenarekin eta PRAKTIKAREKIN ikasiko da.

**7. Tutorearekin batera planifikatzen dituzu Estefaniarekin landuko diren gaiak eta egingo diren jarduerak? Ebaluazioan nola parte hartzen duzu?**

Egia esan, ez. Ez naiz tutorearekin askotan bildu "E"-ren jarduerak koordinatzeko. Gehienbat PTarekin lan egiten aritu naiz. Askotan "E"-ren bizitzako momentuez hitz egiten dugu; berarekin landuko diren helburuak eta edukiak koordinatzen ditugu eta material trukaketa ere egiten dugu. Oso koordinazio ona egon da bion artean eta lan berdina egiten aritu gara.

**8. Zeintzuk izaten dira zure ikasleak behar dituzten edota aplikatzen dituzte baliabide eta egokitzapenak? Adibiderik jarri dezakezu? Eta Estefaniarekin?**

ALE irakasleek ez ditugu inolako egokitzapen edota baliabide materialik prestatzen ikasleei bere gela arrunterako. Halere, PTari laguntzen diogu ikasleen egokitzapenak diseinatzen.

Bestetik, gelan erabiltzen ditudan materialak ahalik eta bisualenak eta ludikoenak izaten dira. Hiztegi txartelak asko erabiltzen ditut, esaldiak sortzeko dadoak, ipuinak sortzeko biñetak eta abar. Gelan, jada, idatzizko lan asko egiten dituzte, horregatik, nire saioetan beti saiatzen naiz lana manipulatioa, ahozkoa eta jolas modura aurkezten.

"E"-rekin gehien erabiltzen dudana egokitzapena piktogramena da, informazioa ahalik eta bisualkien aurkeztuz. "E"-k ulermen arazo asko ditu hiztegi faltagatik eta horregatik piktogramen laguntza asko erabiltzen dut. "E"-rentzat oso lagungarria da saio bakoitzaren hasieran piktoen bidez egingo denaren azalpen bat ematea; berak alde aurretik badaki zer egingo duen eta horrela ez dabil denbora guztian galdetzen.

Beste alde batetik, "E"-rekin jolas sinbolikoa asko erabiltzen dut, bere egunerokotasuneko egoerak antzezten ditugu eta emozioak ere adierazten ditugu.

**9. Zure helburuen artean ikaslearen independentzia sustatzea da? Ikaskuntzan zailtasunak dituzten ikasleen arteko elkarlana bultzatzen du?**

Ikasleek haien autonomia garatzea bada helburu nagusi bat eta nik bide hori lortzen laguntzen diet beste irakasleekin batera. Edozein ikaslek ikasi beharra dauka elkarlanean bizitzen eta hauen egunerokotasuneko arazoak identifikatzen, analizatzen eta konpontzen. Horretarako, beharrezkoa da haiei autonomia sustatzea eta ikasleen ikaskuntza testuinguru errealean oinarritzea.

**10. “E”-rekin gela barruan lan egiten duzu? Nola? Zergatik?**

ALE irakaslea ez da “E”-ren gelan sartzen. ALE saioak oso laburrak dira eta azkenean “E”-ren denbora aprobetxatzeko, gelaz kanpoko saioak diseinatu ziren. Gainera, “E”-k zailtasun handiak ditu lanean jartzeko eta bere atentzioa mantentzeko; gela arruntean mugimendu, estimulo eta zarata asko dago eta ez litzateke ziurrenik lan oso produktiboa izango. Halere, ez nuke deskartatuko gela guztiarekin noizean behin ALE saioak burutzea.

**11. Ikasle baten garapenari buruz kezkak daudenean, hezkuntza taldeak arazoak konpontzen saiatzen da ikastetxe barruan zein kanpoan? (Familia aholkatzen, eskolaz kanpoko zerbitzuak gomendatzen eta horiekin harremanetan jartzen eta abar.)**

Hori horrela izan beharko litzateke. Eskola hau ikasle kopuruz, arazo egoeraz eta HPB ikasleen aldetik oso aberatsa da eta espezialista askoz hornituta dago. Eskola potentea da, denetarikoa kasu asko ditugulako.

Saiatzen gara edozein arazoren aurrean irakasleak honi konponbide bat ematen; zuzendaritza taldea ere implikatzen da; eskolako aholkulariak kasua aztertzen du eta nola ez, familiarekin ere harremanetan jartzen gara. Halere, kanpoko faktore askok kontra egiten dute laguntza hau ahalik eta arinen edo errazen burutzen (familia desestrukturatu, hezkuntzan sailaren partetik errekurtsio pertsonalaren falta, berritzegunean partetik ekimen falta handia etab.)

**12. Hezkuntza, osasun eta zerbitzu sozialen arteko koordinazioa eta laguntza bultzatzen da ikasleentzat eta beraien familientzat? (Adibidez, pediatrekin hitz egin, kanpoko zerbitzuekin harremanetan egon eta abar.)**

Bai, noski. Ikaslearen hezkuntzan murgilduta dauden barne eta kanpoko espezialisten koordinazioa bultzatzen da. Hala ere, hau beti ez da ematen denbora edo organizazio faltagatik. Baina saiatzen gara psikologo, pediatra, arreta goiztiarra, logopeda eta abarreko pertsonekin bilerak antolatzen. Aholkularia eta tutorea izaten dira horretaz arduratzen diren pertsonak.

Nire kasuan, nik hitz egin izan dut ikasleen kanpo logopedekin ikasleari buruz hitz egiteko eta helburu eta edukiak koordinatzeko.

**13. Familiarekin modu koordinatuan lan egiten duzu? Nolakoa da beraien parte-hartzea? Zerk laguntzen du familiaren kolaborazioa lortzen?**

Nik ez ditut familia guztiekin bilerak antolatu, gutxi batzuekin bakarrik. Orokorrean, nik tutoreari adierazten diot nire ikasleekin burutakoa eta berak gurasoei komentatzen die. Ez da prozesu egokia eta nik bai ikusten dut beharrezkoa izan beharko litzatekeela guraso guztiekin elkarrizketak antolatzea.

Gurasoen parte hartzea aktiboa izaten da; halere, beste guraso askorekin zaila izan ohi da iradokizunak ematea eta haurra nola dabilen komentatzea (familia egoerak eta egiturak ondorio handiak dituzte ikasleengan). Argi dago, gurasoen kolaborazioa nahi izanez gero hauei entzun beharra dagoela eta denborarekin zugar konfiantza hartzea; haurraz arduratuz, galdetuz, lagunduz lortu daiteke.

**14. Zure ustez, eskola publikoak HPB-ak dituzten haurrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak ditu?**

Ez, ez ditu. Murrizketak direla medio, HPB ikasleentzako errekurso material eta pertsonalak gutxiagoak dira. Nire gelan ematen den egoera adieraziko dut: ALE laguntza behar duten ikasleen kopurua igotzen ari da eta gero eta ikasle gehiagoren esku-hartzean parte hartzen dut. Halere, nire ordutegi dena bete beterik dago. Ez dauzkut legez adierazten diren 2 saio libre denbora pertsonalerako eta baten bat listetan sartu nahi bada, “laguntza gutxien” behar duen ikaslea atera egiten da, bere eskubide guztiak zapalduz. Ez dira profesionalak kontratatzen eta ikasle asko laguntzarik gabe geratzen dira ordutegi eta errekurso pertsonal faltagatik. Lotsagarria da benetan.

Aniztasun handia dago eta laguntzaren beharra ohikoa da; baina administrazioak, gobernua, ez dio horri erreparatzen eta garbiketa sakonak egiten dira (ikasleen egoera familiarra, soziala, eskolarra, pertsonala kontuan hartu barik).

**15. Uste duzu beharrezkoa dela hezkuntza baliabideak eta neurriak aldatzea? Eta hezkuntza praktikak?**

Argi eta garbi. Gaur egun argitaratzen diren hezkuntza modelo berriak, ikerketak, ikasketak, eta abar. teoriar oso politak eta idealak dira, baina hezkuntzan agintarien ehuneko zenbatak lan egin dute benetako ikasgelan? Dena oso utopikoa da paperean, baina errealitatea ez da apaintzen den bezala. Administrazioaren aldetik gauzak errealitate batean burutzea: eskolara etorri eta zure begiek begiratu zein den egoera eta aztertu zure begiekin; ondoren, hasi legeak, proiektuak aldatzen.

Bestetik, ikasleen baliabideekin justuak izan behar gara eta benetako garrantzia eman, ez utzi bazter batean eta ez ikusiarena egin. Laguntza eskuratzeko neurriak, murrizketak direla eta, oso zorrotzak dira eta ez dute ikaslearen egoera kontuan hartzen; laguntzak kendu egiten dira ikasleak bertan behera utziz (laguntza ekonomikoa, materiala eta pertsonala ere).



Gehigarri bezala: aldatu beharra dago gobernuak hezkuntzari ematen dion diru laguntzaren ehunekoa. Notizia izan da eskola kontzertatuei gobernuko %90eko diru laguntza eman zaiela eta publiko %10rrekin soilik geratu da.

**16. Zer eskatuko zenioke administrazioari?**

- Bere erabaki ekonomikoetan justua izatea eta behar den dirua publikoan inbertitzea.
- Laguntza pertsonalak eta materialak eskaintzea. Errealitatean beharrezkoak direnak betetzea.
- Formazio hobetza (PRAKTIKAN OINARRITUA ETA EZ TEORIAN ETA IRAKASLE PROFESIONALEK BIDERATUA) eskaintzea irakasleei.
- Ikasleen aniztasuna, eskola GUZTIEN artean banatzea (bai publiko baita kontzertatua ere, dirua banatzen den bezalaxe) eta orekatzea.

*Eskerrik asko zure parte hartzeagatik eta galdera hauei erantzuteagatik.*

## **TUTOREARI ELKARRIZKETA**

**1. Zure ustez, zeintzuk dira profesionalek dituzten erronkarik nagusienak gaur egun hezkuntza inklusiboa bermatzeko?**

Nire ustez, gure erronkarik nagusiena ikasle bereziaren kopurua igo egin dela da, baina ez hezitzaile, ALE eta PTArenek. Ume asko ditugu gelan eta HPBak dituzten ikasleak gelan ezin dira zentratu eta arreta indibiduala beharrezkoa da haientzat. Dena den, profesional horiek gelan sartzearen alde nago.

**2. Zentro honetan ikasleen aniztasuna eta dibertsitateak gora egin du azken urteotan? Nola?**

Bai, kanpoko familia kopurua gero eta handiagoa da eta gainera, edozein momentuan agertzen dira. Hau da, ikasturte hasieran zein erdian eskolatzen dira haur horiek.

**3. Eskola publikoak ikasleei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak ditu? Uste duzu beharrezkoa dela hezkuntza baliabideak eta neurriak aldatzea? Eta hezkuntza praktikak?**

Bai, baditu baliabideak baina ez dira nahikoak, umeen kopuruak gero eta handiagoak direlako. Gainera, nire ustez, helduko da memento bat, non eskola publikoa getoa bihurtuko den, denak amaitzen dutelako hemen.

**4. Zure ustez nola aldatu beharko litzateke hezkuntza ikasle guztiei egokitzeko?**

Errekurtso gehiago ipintzen (pertsonalak eta materialak) eta umeen kopurua baxatzen. Ratioak oso handiak dira eta gela berean ume asko egoten dira.

**5. Zer eskatuko zenioke administrazioari?**

Eskola publikoan diru gehiago inbertitzea material on bat edukitzeko eta giza baliabide gehiago.

**6. Hezkuntza, osasun eta zerbitzu sozialen arteko koordinazioa eta laguntza bultzatzen da ikasleentzat eta beraien familientzat? (Adibidez, pediatrekin, eskolaz kanpoko zerbitzuekin eta beste profesionalekin harremanetan jarri eta abar).**

Bai, batez ere pediatra eta gizarte langilearekin harremanetan egoten gara.

- 7. Uste duzu zure lan-ordutegian denbora gehiago behar duzula gainerako irakasleekin, begiraleekin, PT edota beste profesionalekin hitz egiteko eta elkarlanean aritzeko?**

Bai, batzuetan bai.

- 8. “E”-ri eskaintzen zaizkion laguntza guztiak ikasgela barrura bideratuta daude? Nola? Erantzuna ezezkoa izatekotan, nola bideratzen da arreta hori gelatik kanpo?**

PT eta ALEko laguntzak kanpoan izaten dira eta hezitzailearenak, momentu batzuk kanpoan ematen dira (eguneroko errutinak eta ordutegia piktogramarekin bidez jartzeko) eta beste guztia barruan. Dena den, hezitzaileak ez dira ordu guztietan egoten gela barruan “E” gelan dagoenean.

- 9. Zure ikaslea astean zenbat egun ateratzen da gelatik? Zer egiten du gelatik kanpo? Uste duzu ikasleak gelatik ateratzeak inklusioa bultzatzen duela? Zure ustez beharrezkoa da ikasleak noizbehinka gelatik ateratzea?**

“E” egunero ateratzen da gelatik PTarengana joateko. Astean 7-8 ordu gutxi gorabehera ateratzen da gelatik PT eta ALE espezialistekin joateko beste gela batera. Beran, berari egokitutako lanak egiten dituzte.

Inklusioa ez da bultzatzen, ez. Baina umea gela barruan dagoenean, asko dispentsatzen da, eta horregatik, ateratzen dute gelaz kanpora; kanpoko estimulurik ez edukitzeko.

- 10. Tutorea eta laguntza irakasleak elkarlanean planifikatzen dituzue landuko diren gaiak eta egingo diren jarduerak? Ebaluazioa elkarrekin egiten duzue?**

Bai. Gelan egiten ditugun gaiak egokitzeko hitz egiten dugu. Horrez gain, gurasoen elkarrizketak batera egiten ditugu.

- 11. Ikastetxeak duen metodologiak, Amara Berri, ikasleen autonomia bultzatzen du gelako espazioaren antolamenduarekin? Nola? Adibideren bat jarri dezakezu?**

Gelako txoko edo espazio bakoitzak bere helburua du, eta umeek badakite txoko bakoitzean egin behar dutena, baita materiala non dagoen eta non gorde behar den ere.

- 12. “E”-k azken urte hauetan ikasketa prozesuan aldaketak izan ditu? Adibiderik jarri dezakezu? (Hizkuntza, harremanak, autonomia eta abar).**

Bai, oso handia. Komunikazioan adibidez, iazko gabonetara arte (HH4 urteko gelan) ez zuen berbarik egiten eta hitz solteak bakarrik errepikatzen zituen (ekolalia). Gero, hasi

zen hirugarren pertsonan hitz egiten eta orain hasi da lehenengo pertsona erabiltzen. Horretaz aparte, harremanetan ere aurrerapen handia izan du, lehen bakarrik ibiltzen zen eta orain ez, lagunak topatzen ditu.

**13. Zerk laguntzen du familiaren kolaborazioa lortzen? Zuek zer egiten duzue?**

HHn oso erreza da familiarekin harremanetan jartzea oso txikiak direlako eskolara hasten direnean (2 urte) eta gu hartzen gaituzte bigarren amak izango baginen bezala. Hau, guztiz errazten du familiaren kolaborazioa edukitzea, eguneroko harremana izaten dugulako.

*Eskerrik asko zure parte hartzeagatik eta galdera hauei erantzuteagatik.*

## **IRAKASLEARI ELKARRIZKETA**

### **1. Zure ustez, zeintzuk dira profesionalek dituzten erronkarik nagusienak gaur egun hezkuntza inklusiboa bermatzeko?**

Gero eta etorkin gehiago ditugu eskolan. Ikasturteko edozein momentuan agertzen dira eta batzuetan ez dute jarraitzen ikastetxe berean, berriro herriz aldatzen direlako. Egokitzapen aldia kasu batzuetan luzea izaten da arrazoi desberdinengatik: ez direlako egon eskolaratuta, hizkuntza ez dutelako ulertzen, arauak eta ohiturak beste batzuk direlako...

Hori guztiari gehitu behar zaio beharizan bereziak dituzten ikasleen kopurua ere igo dela. Hezitzaile, A.L.E eta P.T.-ko irakasle gehiago eskatzen dira, baina gero eta zailagoa da hori lortzea, laguntza horiek jasotzeko beharrezkoak diren baldintzak ere gehitzen hasi direlako.

Haur Hezkuntzako ikasle kopurua, nire ustez, altuegia da: 18 ikasle 2 urteko geletan eta 23 ikasle 3, 4, eta 5 urtekoetan.

Zorionez, ez da nire kasua, baina familien aldetik ere ez dugu ikusten inplikazio larregirik.

### **2. Zentro honetan ikasleen aniztasuna eta dibertsitateak gora egin du azken urteotan? Nola?**

Bai, esan dudan bezala, gero eta etorkin gehiago ditugu eta ikasturteko edozein sasotian etortzen dira eskolara. Egoera horri guk egin behar diogu aurre eta ezagutzen ez duten hizkuntza batean hezi behar ditugu.

### **3. Eskola publikoak ikasleei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak ditu? Uste duzu beharrezkoa dela hezkuntza baliabideak eta neurriak aldatzea? Eta hezkuntza praktikak?**

Baietz uste dut, baina azken urteotan aldaketak egon direnez, baliabideak ez dira nahikoak. Horiek ere aldaketen arabera gehitzen joan beharko lirateke. Gero eta eskakizun handiak daude eta batez ere, giza baliabideen falta nabaria da ikasleei beharrezkoak zaizkien laguntzak eskaintzeko.

**4. Zure ustez nola aldatu beharko litzateke hezkuntza ikasle guztiei egokitzeko?**

Beharrianak dutenei laguntza gehiago emanaz eta idealena, ikasgela bakoitzean irakasle bat baino gehiago gelan izanda.

**5. Zer eskatuko zenioke administrazioari?**

Eskola publikoaren alde lan egitea baliabide gehiago jarritz, bai materialak baita pertsonalak ere.

**6. Hezkuntza, osasun eta zerbitzu sozialen arteko koordinazioa eta laguntza bultzatzen da ikasleentzat eta beraien familientzat? (Adibidez, pediatrekin, eskolaz kanpoko zerbitzuekin eta beste profesionalekin harremanetan jarri eta abar).**

Gehienbat pediatra eta gizarte langileekin izaten ditugu harremanak eta nolabaiteko koordinazioa egoten da.

**7. Uste duzu zure lan-ordutegian denbora gehiago behar duzuela gainerako irakasleekin, begiraleekin, PT edota beste profesionalekin hitz egiteko eta elkarlanean aritzeko?**

Nahiko ondo konpontzen gara, baina sarritan formakuntza, gurasoekin bilerak edota beste arazoren bategatik estu eta larri ibiltzen gara. Normalean, astean hiru edo lau tarte ditugu "esklusiba" deitzen diegunak gure artean bilerak egiteko.

**8. Ikasleei eskaintzen zaizkien laguntza guztiak ikasgela barrura bideratuta daude? Nola? Erantzuna ezezkoa izatekotan, nola bideratzen da arreta hori gelatik kanpo?**

Ez. Nire gelako ikaslea saio batzuetan PTko irakaslearekin eta beste saio batzuetan, ALEko irakaslearekin irteten da gelatik. Beraiekin dagoenean, berari egokitutako lanak burutzen ditu eta gehienetan, bertan egiten duena gelara ekartzen du nik ikusteko. Beste batzuetan, gelako zereginen bat eraman du bukatu barik zeukalako eta beraiekin egin du.

**9. Uste duzu ikasleak gelatik ateratzeak inklusioa bultzatzen duela? Zure ustez beharrezkoa da ikasleak noizbehinka gelatik ateratzea?**

Nire gelako ikaslea besteak bezalako beste ikasle bat da gela barruan, laguntzarekin errefortzuko jarduerak egiten ditu eta kasu honetan, ondo datorkio gelatik irtetea, aditasuna mantentzea kostatzen zaiolako.

**10. Ikastetxeak duen metodologiak, Amara Berri, ikasleen autonomia bultzatzen du gelako espazioaren antolamenduari? Nola? Adibideren bat jarri dezakezu?**

Hasieran, dinamika hartzea zaila egiten zaie batzuei. Laguntzarekin bereganatzen doaz dinamika hori eta denborarekin gai dira haien kabuz gela eta txokoetako espazioetan kokatzeko eta jakiteko leku bakoitzean zer egin behar duten.

Espazio bakoitzak bere helburu, jarduera eta material desberdinak ditu eta haiek badakite zer non dagoen eta zer non egin behar den. Orduan, zereginak espazio desberdinekin lotzen dituzte.

**11. Ikasle hau ("E") 2 urteko gelatik izan duzue zuekin. Azken urte hauetan ikasketa prozesu horretan aldaketa handirik nabaritu duzue? Hobekuntzarik? (Hizkuntza, harremanak, autonomia eta abar)**

Asko hobetu da eta aldaketa horiek oso nabariak dira. Momentu honetan, hitz egiterakoan esaldiak erabiltzen ditu eta galdetzen zaionean erantzuten du. Gainera, lagunekin jolasten du eta harremanak ditu. Autonomia aldetik ere asko aurreratu du.

**12. Zerk laguntzen du familiaren kolaborazioa lortzen? Zuek zer egiten duzue?**

Hasieratik, baikorrak izan behar gara, familiak guregana erakarri behar ditugu eta harremanak ikasleak Haur Hezkuntzan dauden bitartean, estuagoak izan behar dira. Haien altxorrik handiena gure eskuetan dago eta irakasleok argi izan behar dugu hori.

Egia ezan, urte asko daramatzat hezkuntzan eta familiekin harreman onak izan ditut. Halere, beti dago familiaren bat ez dena inplikatzeko baina gutxiengoak dira, nire kasuan behintzat. Gainera, gurasoen erantzuna ikusita norberak badaki familia horietan irakaslea onartua eta ondo ikusia dagoen hala ez.

*Eskerrik asko zure parte hartzeagatik eta galdera hauei erantzuteagatik.*

## 5. ERANSKINA. Ikastetxearen deskribapena.

Hasteko, Haur Hezkuntzako eraikina Iparraldean dago eta horretan HH 2, 3 eta 4 urteko gelak daude. Eraikin hau guztiz berrituta dago, obra batzuk egin eta gero, bederatzi gela, liburutegia, psikomotrizitate gelak eta jantoki berri bat daude bertan. Eraikinaren aurrez aurre jartzen bagara, HH 2 urteko gelak eraikinaren ezker alde kokatuta daudela ikus genezake eta geletatik irtetean, hesituta dagoen patio txiki estali bat dagoela ere, non haurrak bizikletekin ibiltzen diren. Eskuineko aldean, berriz, beheko aldean jantokia dagoela ikus daiteke eta kanpoan, gune estali bat dago kulunkekin harreman zuzena duela, eguraldi txarra egiten duenean haurrak busti ez daitezten. Aipatutako kulunka horiek ere estalita daude eta hesiz inguratuta haurrak ez irteteko. Horiez gain, patio ireki handi bat dago eta bertatik gimnasioa ikus daiteke, non lorategi batez inguratuta dagoen. Eraikinaren bigarren solairuan, goian aipatutako HH 3 eta 4 urtekoen gelak, psikomotrizitate gelak eta liburutegia daude. Eraikin honek bost sarrera-irteera ditu, nahiz eta hurrek bi baino ez erabili.

Mendebaldeko eraikinean, ikastetxean dauden gainerako ikasleentzako jantokia eta sukaldea kokatzen da, baita liburutegia, musika gela, ingeleseko gela, erlijio gela eta tailer bat ere. Bertan, HH 5 urteko gelak eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2. zikloko gelak ere daude kokatuta. Eraikin honekin lotura zuzena duen beste eraikin bat dago, non Heziketa Bereziko gelak dauden. Hemen, PT-ko 3 gela daude, baita ALE gela bat eta Gorren Taldekatzeko gela bat ere. Kanpoko aldean, patio handi bat izateaz gain, hiru alde estali daude eguraldi txarra egiten duenean umeak busti ez daitezten.

Ekialdeko eraikinari dagokionez, 2 eta 3. zikloko ikasleen ikasgelak daude eta horri dagokion patioa ere. Honekin zuzenean lotuta dagoen eraikin osagarria dago non, idazkaritza dagoen. Aipatutako eraikin honetan, irakasle gela eta mintegi eta bilera pedagogikoak egiteko irakasleentzako beste gune bat kokatzen dira. Hemen, jantokiko arduradunaren bulegoa ere dago.

Aipatutako eraikin horiek guztiez gain, Hegoaldean, eskolatik kanpo beste eraikin bat dago eta horretan, zuzendaritza eta gurasoen elkartea daude.



6. ERANSKINA. Giza baliabideen antolakuntza.












<b>ZUZENDARITZA TALDEA</b>				
<b>Zuzendaria</b>	Amaia			
<b>Ikasketa burua</b>	Iciar			
<b>Idazkaria</b>	Mikel			
<b>HAUR HEZKUNTZAKO 1.ZIKLOA</b>				
<b>2 urteko gelak</b>	A	Arantza	18 haur	54 haur
	B	Bihotza (Mintegi burua)	18 haur	
	D	Itziar	18 haur	
<b>HAUR HEZKUNTZAKO 2.ZIKLOA</b>				
<b>3 urteko gelak</b>	A	Ana Mari	16 haur	50 haur
	B	Marije	16 haur	
	D	Saioa	18 haur	
<b>4 urteko gelak</b>	A	Itxaso	23 haur	46 haur
	B	Olatz	23 haur	
<b>5 urteko gelak</b>	A	Aintzane (Koordinatzailea)	23 haur	46 haur
	B	Marisa	23 haur	
<b>Beste batzuk</b>	Bidatz (HHko irakasle laguntzailea)			
	Doltza (Herena)			
	Edurne (Ingeleseko irakaslea)			
	Eider (Musikako irakaslea)			
	Isa (Erljioko irakaslea)			
<b>Jantokian</b>	24 begirale daude guztira.			
<b>Heziketa</b>	Aholkularia	Iñigo		

<b>Bereziko irakasleak</b>	HIPI	Iñaki
	PT	Aurori
		Eva
		Inma
		Ainhoa
		Karmele
	ALE	Ziortza
	Logopeda	Mirene
	Gorren taldekatzeko irakasleak	Nagore
		Olaia
		Ziortza

## 7. ERANSKINA. Hobekuntza proposamena.

### KOMUNIKAZIOA LANTZEKO

- Arreta mantentzen laguntzeko:
  - Saio kolektiboetan (gelako haur guztiak ekintza berdinetan parte-hartzen dutenean), irakaslearengandik hurbil egotea nahiz eta hezitzailea ordu horietan ikasgela barruan egon berarekin.
  - Ikastetxeko zein gelako espazio desberdinak piktogramaz edota irudiez adieraztea autismoa duen ikaslearen kokapena ziurtatzeko eta hobetzeko. Laguntza bisualak ezinbestekoak dira autismoa duten ikasleentzat.
  - Gelan egiten diren errutina guztiak, autismoa duen haurra eta gainerako ikasleak burutzen dituztenean, autismoa duen ikasleari egokitutako materialekin egitean (piktogramak). Horrela, berari errazagoa egingo zaio gelako ildo jarraitzea.
  - Gelan kontaktzen eta erabiltzen diren ipuinak ikasle guztientzako izan daitezten, ipuineko irudiez gain, piktogramak ere izatea autismoa duen ikaslearen ulermena hobetzeko eta ziurtatzeko. Ondoren, sekuentziak lantzea laguntza bisualen bidez (zer gertatu da arinago eta zer ondoren).
- Idatzizko hizkuntza lantzeko, manipulazioa ahalbidetzen dituzten hizkiak haurren eskura egotea (imandun hizkiak, plastifikatutako hizkiak, hizkien dominoa).
- Ikasgela barruan egiten diren fitxak piktogramen bidez azaltzea edota bere fitxan piktogramak inprimaturik jartzea. Horri esker, hobeto ulertuko du zeregina eta horiek ikusita bere autonomia bultzatuko da. Gainera, lanak etxera eramaten dituztenean, gurasoei azaltzeko gai izan daiteke.
- Normalean, eskolan gertatzen dena edo egiten duena etxean ez duenez kontaktzen, oso egokia litzateke eguneroko bat egitea irudien bidez. Berak erantzunak margotuko ditu.

- Nola sentitu naiz gaur?  
- Zein txokotan aritu naiz?    
- Zer jan dut jantokian?     

### GAITASUN SOZIALAK LANTZEKO

- Egunerokotasuneko egoerak antzeztea beste pertsona batzuen rolean jartzeko (roll-playing). Horrela, empatia landuko da.
- Egoera batzuen aurrean eta arazoak konpontzen laguntzeko asmoz, galderak egitea egoera ondo aztertzeko.

*Ekainen lagunak bere etxera doaz filma bat ikustera. Ekaini asko gustatzen zaio "Pocahontas", baina askotan ikusi dutenez, lagunak ez dute hori ikusi nahi. Zer egin beharko luke Ekainek?*

- *Ekaini zer gustatzen zaio ikustea? \_\_\_\_\_*
  - *Bere lagunak gustatuko litzaieke ikustea \_\_\_\_\_*
  - *Nola sentituko dira lagunak Pocahontas ikusiko balute? \_\_\_\_\_*
  - *Lagunak haserretzen badira, ez dira berriz etorriko Ekainen etxera. Ekainek nahi du lagunak bere etxera berriz etortzea? \_\_\_\_\_*
  - *Ekainek zer egin behar du lagunak ez haserretzeko? \_\_\_\_\_*
- Egunero sentimenduak edo emozioak lantzea, horrela autismoa duen ikasleak horiek identifikatzen jakingo du eta sentimendu horiek kontrolatzeko lanketa egin daiteke ikasgela barruan. Horretarako, aurpegiko adierazpenak erabili daitezke; hala nola, irudiak, mimika, ispiluak, haurren argazkiak aztertzea eta abar.
  - Gelako arauak irudien bidez adieraztea horiek gogoratzeko eta hobeto ulertzeko.
  - Gelako egutegia, hizkuntza idatzian adierazita egon ez ezik, irudien bidez adierazita egotea ezinbestekoa da autismoa duen haurra kokatzeko. Izan ere, berarentzat laguntza bisuala oso garrantzitsua da eta egunean zehar gertatuko denaren informazioa izatea segurtasuna emango dio.

## BESTELAKO LAGUNTZAK

- Nahiz eta ikastetxean metodologia bat izan, gela barruan autismoa duen haurrari hezkuntza erantzun egoki bat emateko asmoz, TEACH metodologiaren zenbait ezaugarri erabiltzea gela barrua. Metodologia hau eragin handia du autismoa duen haurrengan; oso antolatuta dagoelako eta komunikazioari mesede handia egiten diolako.
- Gelan material desberdinak erabiltzea jarduerak egiterakoan. Autismoa duten haurrak normalean memoria bisuala nahiko garatuta izaten dute eta gauzak zein jarduerak buruz ikasten dituzte. Ondoren, modu mekanikoan burutzen dute dena eta horiek guztiak beraiek bakarrik egiten dakiela pentsatzera eramaten gaitu.
- Kasu honetan, autismoa duen haurrak ez du behar heldu baten presentzia patioan dagoenean lagunekin aritzeko. Dagoeneko, lagunak topatzeko gaitasuna du eta ez dago inoiz bakarrik. Dena den, astean bitan jolas orduetan burutzen diren jolas gidatuetan parte-hartzea oso onuragarriak izan daitezke bere garapenerako; alde batetik, harreman-sarean zabaltzen delako eta bestetik, arau berriak ikasteko gaitasuna lantzen delako.